



"Zerbaiten falta sumatu izan dut, eta horrek historian begiratzera eramán nau"

Juan Luis Larraza Lakunza, idazlea / 22-23



2014ko galdeketa gogoratzeko ospakizuna / 6

Irurtzango Udalak eskolan eta aparkalekuan hobekuntza lanak egingen ditu / 5

Lakuntzako jolas parkea berritzeko eta moldatzeko parte hartze prozesua abiarazi dute / 7

Buruz Buruko final laurdenetan daude Ezkurdia eta Binakakoa irabaztetik datorren Zabaleta / 16

Iskizako Iturrioz, Diaz eta Erdozia gimnastak, Espainiako Banakako Txapelketan / 19

Miren Agur Meabek 'Itzulerak' liburua aurkeztuko du, hilaren 26an, Uharte Arakilen / 21

SINADURAK

 AINGERU MIKEO AZPIROTZ / 4	 SAKANA TRENAREN ALDE / 4
 JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON / 10	 IRATI PELLEJERO MARIN / 22

"Salatzeak ez du ezertarako balio gero ez badute neurririk hartzen"

ITZIAR RESANO FERNANDEZ-VILLA IKERLARIA

Arakilgo bailarak jasaten duen despopulazio egoera larria ikusita, zainketari buruzko ikerketa bat egin zuen Resanok Sustraiak programaren eskutik

Marina Arevalo Alonso ARAKIL

Despopulazioa gizartean geroz eta gehiago gertatzen ari den fenomeno larria da. Nafarroan XX. mendean nabaritzen hasi zen arren, Administrazio Publikoak ez du segurtasun neurririk hartu autonomia foru erkidego-ko udalerrien %60 kaltetuta dagoela ohartu diren arte. Testu-inguru horretan, Itziar Resano Fernandez-Villak Nafarroako Gobernuak sortutako 'Sustraiak' programaren hirugarren edizioan parte hartu zuen, Arakilen zainketaren inguruan ikerketa bat eginez.

Zainketari begira, zer nolako eraginak sor ditzake despopulazioak autonomia erkidego batean?

Hasteko, eraginak oso kaltegarriak izan daitezke. Izan ere, ikerketa hasi aurretik, Arakilgo erroldatik abiatuta analisi soziodemografiko bat egin nuen eta adinekoen eta bakardadearen eragina agertzen zela konturatu nintzen. Horren harira, herriz herri joan nintzen adinekoak ezagutzeko eta zein bakardade mota pairatzen duten jakinez. Familia ereduak, azken finean, aldatu

dira eta kontziliazio erronkak izugarrikoak bihurtu direla ohartu nintzen. Pena bat da herri-erregintza edo sare kolektibo bat oraindik ez existitzea haiei laguntzeko.

Despopulazioaren Aurkako Departamentu arteko Batzordea 2019an sortu zen Nafarroan. Gobernu despopulazioa geldiarazteko adina neurri hartzen ari dela uste duzu?

Ez... Arakilen etxebizitzaren inguruko arazo larriak daude jabeek ez dituztelako salgai jartzen edo, agian, bigarren etxebizitzak direlako. Orduan, eskaintza murrizta dago gazteek alokairuak lortu ahal izateko. Hori dela eta, Iruñea aldera jotzen dute, herri despopulatueta ez baitago eskuragarri lan baldintzarik ezta lan aukerarik.

Beraz, gazteei despopulazioaren errua botatzen dietela uste duzu?

Bai, egia da kontzientzia handia dagoela gazteen beharren inguruan. Adibidez, Arakilgo gizarte zerbitzuek, udalerrriak eta kultur zinegotziak gazteek ibarrean bizi nahiko luketela azpimarratu zuten, baina ez zutela hautabiderik, bai lanaren alde-

tik, bai etxebizitza eskaintzari begira.

Nafarroako Gobernuaren eta Unibertsitate Publikoaren hitzetan, 'Sustraiak' programak gizarteak landa ingurune despopulatuarekiko kontzientzia hartzeko xedea du. Zertan datza 'Sustraiak' programa bertan parte hartu duen ikasle baten ikuspuntutik?

Lehenbizi, *Sustraiak* programaren helburua Nafarroako errealliteratza hurreratzea da. Azken finean, gure kultura eta ondarea ez galtzeko erabilgarria izan daiteke. Abiapuntu horretatik, proiektu horrek ikerketen bidez despopulazioaren egoera salatzen xedea du, gero Gobernuak eta agintariak neurriak har ditzaten.

Arazoei konponbideak aurkitzeko ikerketa horiek kontuan hartzen dituztela uste duzu?

Tamalez, ez dut uste horrela gertatzen denik. Eremita lokaletan gertatzen diren ikerketek probintzia edo autonomia mailan ez dute eraginik. Neurriak Nafarroako Gobernuak hartzen ditu eta eremu lokaletan beharrak daudela jakin arren, horiek kon-

tuan hartzea zaila egiten da. Gainera, batzuetan udalerrri txikien menpe dauden kompetentziak ez dira nahikoak arazoei erantzun bat emateko.

Lehen esan dugun bezala, programaren hirugarren edizioaren parte izan zinen. Zergatik aurkeztu zinen eta zer helbururekin?

Lehenik eta behin, soziologia ikastearren eta nire ezagutza profesionala bultzatzearen. Despopulazio arriskuan dagoen ibarrari eta egoera zaugarrian dauden bertako familiengana nola gerturatu nintekeen jakin nahi nuen, hala nola, ama bakarrarengana edo bakardadean bizi diren alargunengana. Esperientzia oso aberasgarria iruditu zitzaidan.

Praktikak lau hilabetez Arakilgo Udalean egin zenituen. Zeintzuk izan ziren zure erantzukizun nabarmenenak denbora horretan?

Batez ere, proiektua pentsatu eta betebeharreko xedeak ongi finkatu behar izan nituen, horiek bete behar genituelako. Helburuak zeintzuk izan behar ziren jakiteko, alkatearen, kultur zinegotziaren eta gizarte eta osasun zerbitzuen laguntza izan nuen. Arakildarren beharrak

"GAZTEEK IBARREAN BIZI NAHIKO LUKETE, BAINA EZ DUTE HAUTABIDERIK"

"UDALERRI TXIKIEN MENPE DAUDEN KOMPETENTZIAK EZ DIRA NAHIKOAK ARAZOEI ERANTZUTEKO"

"INDIVIDUALISMOA GEROZ ETA GEHIAGO AREAGOTZEN ARI DA GURE GIZARTEAN"

ezagutu nahi genituen, baina genero ikuspegia eta kontziliazioa kontuan hartuz. Irurtzunek Arakilgo zerbitzu guztiak biltzen dituela jakinik, beharrezkoa zen arakildarrek zein nolako zerbitzu falta sumatzen zuten jakitea. Hori dela eta, zaintza eredu kolektibo bat sortu nahi genuen.

Orduan, kooperazio lan bat izan zela esan genezake?

Hori da, erabateko kooperazio lana izan zen. Gainera, unibertsitateko hainbat irakasleren aholkuak ere jaso nituen, batez ere soziodemografia azterketa aurrera eramateko, nolabait azken 20 urteetan populazioa nola aldatu den ulertzeko. Azkenean, despopulazioa geroz eta larriagoa dela frogatu genuen. Gazteen parte hartze murrizta zegoela sumatu genuen, ez baitago gure kolektibo bat belau-naldi guztiak parte hartzeko edo zaintza sare bat finkatzeko. Pandemia garaian, adibidez, ahalegin moduko bat egin zen, baina neurri hori bertan geratu zen eta ez da jarraitu.

Zein izan zen ahalegin hori alde batera utzi izanaren arazoa?

Pandemiaren eragina izugarrikoa izan zen eta momentu hartan denek lagundu nahi zuten. Hainbat, arakildarrek esaten zuten bezala, individualismoa geroz eta gehiago areagotzen ari da gure gizartean eta horrek gure etxeetan eroso-eroso bizitzera eta gure eskubide sozialei uko egitera eramaten gaitu. Gazteetan, partizipazioa eza sumatzen da, festetan izan ezik...

Aitortu duzun bezala, praktiketan zure funtsezko zeregina Arakilgo zainketaren gaia ikertzea izan zen. Zertan datza zehazki ikerketa hori?

Hasteko, zaintza asistentzialak desberdin behar ditugu, mota asko baitaude. Adibidez, etxeko zerbitzuan, erizain batzuk adinekoen etxeetara astean behin ordu batez joaten dira, ea nola dauden jakiteko eta konpainia egiteko. Hala ere, zerbitzu hori oso markatuta dator gizarte zerbitzuetatik eta eskasa da. Udalerrri despopulatueta jende

EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com
Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika moderna

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



gutxi dago eta gainera, beste herri handiagoko batean lan egiten badute, oso zaila egiten zaie adinekoei kasu egitea. Orduan, konpainia gehiago beharko litzateke, baita familien lan baldintzak zaintzea ere. Era berean, ume txikiak dituzten familientzako haurrak zaintzeko zerbitzurik ez dago.

Beraz, zainketa aipatzen dugunean, zeri buruz hitz egiten ari gara zehazki?

Nire ustez, zainketa adinekoak eta familiek entzutea, beraien egoera gertutik ezagutzea eta beraiekin denbora pasatzea izango litzateke, zauriak sendatzea baino garrantzitsuagoa baita.

Zeri erreparatu zenion zaintzaren inguruan murgildu nahi izateko?

Genero ikuspegiari, batez ere. Arakil oso maskulinizatuta dagoen eremua da, industria asko baitago, eta normalean emakumeak familietako bete-beharrez arduratzen dira. Orduan, emakumeen egoera erreparatuz, baldintza berberak izan ditzaten zaintzaren inguruan murgiltzeko gogoia piztu zitzaidan.

Nafarroako Gobernuaren arabera, Arakil despopulazioa arrisku nabarmeneko egoeran dago. Beharrezkoa al da zainketaren gaia ezagutzera ematea landa ingurune despopulatueta? Zergatik?

Bai, kontzientzia zabaltzea beharrezkoa da, batez ere etxebizitza eskaintzak sortzeko eta lan aukerak herri despopulatueta gerturatzeko. Egoera salatzeak ez du ezertarako balio gero ez badute neurririk hartzen.

Zer lortu genezake gure mesederako gizarte bezala zainketaren gaia arretaz ikertuko bagenu?

Arretaz ikertuko bagenu, agintariek konponbideak aurkitu ahalko litzukete. Neurri horien harira, herrietan bizi den jendeak gelditzeko arrazoi gehiago izango litzuke, bai mugikortasun edo sozializazio aldetik. Azkenean, bizi kalitatea askoz gehiago hobetuko litzateke.

Aurrera eramandako lanean hainbat parametro erabili dituzu ikeritzeko. Soziologiaren aldetik, zer nolako garrantzia dute biztanleriaren adinak, sexuak, lan baldintzak edota egoera familiarak haien hutsuneak eta beharrak ezagutzeko?

Aldagai horiek egoera desberdinak bizi dituzten familien parte dira. Izan ere, klase sozial



Itziar Resano Fernandez-Villa Arakilen lau hilabetez ikertzen egon da. MARINA AREVALO ALONSO

pribilegiatu batean bizi diren familiek kontzientziatzea komeni da, horiek baitira egoera zailagoa duten familien arazoak jasaten ez dituztenak. Horregatik, ezinbestekoa da lehen aipa-

"ZAINKETAN ARITZEN DIRENAK ASKOTAN AMONAK ERE IZATEN DIRA. NORK ZAINTZEN DU ZAINZAILA?"

tutako zaintza motak eskaintzea, baliabide murrizkak dituzten familiek herritik kanpo bilatu behar ez izateko.

Beste aldetik, egindako ikerketan, arakildarren esperientzia pertsonaletan oinarritu zinen, ikuspegi asistentzialista baztertuz edo alde batera utziz. Zein izan zen erabaki horren arrazoi nagusia?

Batez ere ikuspegi kualitatibo bat lortzea izan zen. Gizarte Zerbitzuek datu asko zeuzkaten: laguntza eskakizunak, diru es-

kakizunak, etxeko zerbitzuaren demandari buruzkoak... Baina ez zeukaten historia biografikorik. Oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun alargun batek alarguntasuna nola bizi duen

"ARAKILDARREK INIZIATIBA HARTZEKO PREST ZEUDELA ARGU UTZI ZUTEN"

jakitea. Askotan, jendearen beharrak asetzeko haien artean antolatzen dira, sare sozial informalak sortuz. Horren ondorioz, egoera horiekiko datu falta eraten da.

Gaur egun zainketa egoera kalteberan dagoela esan genezake?

Egoera zaugarri batean dago, geroz eta gehiago zabaltzen den arren, ez da errealitatean aplikatzen. Izan ere, adibidez, aipatutako etxez etxeko zainketa zerbitzuan aritzen direnak askotan amonak ere izaten dira. Beraz, lan eremuan zainketan aritzeaz aparte, etxean ere ilobez eta seme-alabez ere arduratzen diren pertsonak izaten dira. Orduan, nork zaintzen du zainzaila?

Nola saihestu dezakegu?

Zaintza lanak ordainduz edo sozialki prestigio bat emanez. Azkenean, lana bada konpentsazio bat izatea legezkoa izan beharko litzateke.

Zeintzuk izan ziren ateratako ondorio nagusiak? Baten batek bereziki harritu zintuen?

Arakildarrek ibar identitate sendoa dute eta beraien burua gai ikusten dute zaintza sare bat sortzeko. Iniziatiba hartzeko prest zeudela argi utzi zuten. Gazteen artean gune kolektibo bat izateko eta adinekoekin denbora pasatzeko gogoia erakutsi zuten. Askotan, adineko jendeak beraien arazoak erakusteko gaitasun falta izaten dute eta herriaren laguntza jasotzeko ahalmena izatea aukera ona izango litzatekeela argi dago.

Nafarroako Gobernuak txosten batek, 2035ean Autonomia Erkidegoko populazioaren %20k bakardadea jasango duela ohartarazten du. Egoera honi erreparatuz, zainketa-ri begira nolako esango zenuke izan daitekeela arakildarren etorkizuna?

Egia da datu horiei erreparatuz, etorkizun iluna datorrigula. Izan ere, hainbat lekutan, Lekunberrin adibidez, arazo mentalak dituzten adinekoendako zahar etxe bat jarri dute. Aukera hori eredu bezala hartuz, Arakilgo Udalak bailaran antzeko etxe komunitario bat eraikitzea edo moldatzea ongi legoke, hainbat belaunaldi elkarrekin bizitzeko edo erlazioa mantentzeko aukera merkeago bat eskainiz. Horregatik, programa horren ondorioz, nolabaiteko iniziatiba izatea lortzea guretako izugarritzko aurrerapena izango litzateke.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO AZPIROTZ

Altsasun, Murchanten bezala

Soziolinguistikan dabilzan adituek diote euskara biziberritzeko hiru ardatz aintzat hartzekoak direla, eta hirurak K-z hasitako hitzez bataiatu dituzte. Zehazki: Konpetentzia, euskararen ezagutza; Kontzientzia, bestela, euskalduna erdararen itsasoan galtzen da; eta, Koherentzia, euskara erabili egin behar da, bestela jai. Beste batzuek laugarren K bat ere gehitzen dute, alegia, kontsumoa, euskaraz sortutako kultura kontsumitu ezean nekez indartuko baita euskaldungoa.

Bide gorabeheratsu honetan, argiak eta ilunak izaten dira. Hona hemen berriki Altsasun izan dudana esperientzia. Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga (*Eitb*-ko umore saioetan maiz ateratzen dira) aktore lanetan arituko ziren antzerki saiorako erosi genituen sarrerak. Ez zitzaidan burutik pasatu, baina antzoki atarian mugikorrek sarrera erakustean ohartu nintzen izenburuko *Almacenados* jartzen zuela eta ez *Almazenean*. Aretoa lepo beteta zegoen. Saioa hasi aurretik, Altsasuko Udaleko Kultura Zerbitzuaren izenean agurra egin eta saioak iraun bitartean gizabidez portatzeko eskatu ziguten. Gaztelania hutsez! Atera ziren aktoreak taulara eta, beranduegi bazen ere nire susmoa beteta, gaztelania hutsezko saioa burutu zuten, euskararekiko inolako keinurik gabe. Antzezlan surrealista samarra eta umoretsua izan zen, jubilatua behar duen eta bere ordezkoa izanen denaren arteko dialogoak. Ikusgarria! Hala ere, nolabaiteko atsekabeaz ikusi nuen saioa. Aktore euskaldunak erdaraz hitz egiten jarrita. Euskarazko bertsioa duen antzezlan gaztelaniaz, Altsasun. Iortiera, makina bat emanaldi, edo zinema, edo antzerki, gaztelaniaz ekartzen dituztenean, eta euskaraz salbuespen hutsak izanik, halako aukera galtzea. Merkatuan, gaztelaniaz aukera ugari eta, berriz, euskaraz, mugatua denean. Pentsatu nahi nuke Iortiaiko programazioa diseinatzeko tenorean euskara ardatz garrantzitsua izanen dela, baina ez dakit bada. Kasu honetan, hasieran aipatutako lau K horien lekuan, lau KK, KK, KK eta KK ematen ahal zaizkio.

Antzerkitik ateratzean, taberna batean pintxo bat hartzen, Iker Galartza suertatu zen ondoan, eta zoriontzera bururatu zitzaidan: *saio ederra, pena gaztelaniaz. Eskerrik asko! Bai, ni ere harrituta. Euskaraz egin dugu Atarrabian, Antsoainen eta ez dakit zenbat lekutan, eta Altsasun, Murchanten bezala, izan zen bere erantzuna.*

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Abagunea orain da!

SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Lasai irakurle, izenburu hau ez da auzo erkidegoan kanpian dabilzan alderdiek darabilten antzerako beste lelo erakargarri horietako bat. Guztiz kontrakoa, apirilaren 20an Altsasun eta arratsaldeko 6etatik aurrera BM edo Nettotik abiaturik egingen dugun manifiaren aldeko aldarria da. Betiko trenaren eta honek soilik eskain ditzakeen zerbitzuen aldeko aldarria eta AHTarendako eskusiboa litzatekeen plataforma berri baten aurkako salaketa.

Eta AHTa gelditzeko abagunea orain daukagu

ibilbidea erabakita ez dutelako; zehazki nondik joan beharko litzatekeen ez dakitelako; Sakanako udalak azterlanak gauzatzeko beharrezkoak diren zundaketen aurka jarri direlako, Altsasuko Udala salbu; abiadura handiko korridore berri bat egin beharrean betiko tren bizkortzeko, gaurkotzeko eta hobetzeko alternatiba tekniko bat aurkeztu dugulako; eta zergatik ez, soilik hiri handiak merkantziarik eraman gabe lotuko lukeen AHT plataforma berria NAHI ETA BEHAR EZ DUGULAKO.

Eta AHTa gelditzeko abagunea orain da Iruñea-Gasteiz abiadura handian

lotzeko asmo guziak asmo hutsak direlako, ez baitago diru partidari ez proiekturik ez hura aurrera eramateko baldintzarik.

Aldaketa klimatikoa eta krisi ekosozial betean sartzen ari garelarik, garraio zerbitzu kolektiboak aldarrikatu eta exijitu behar ditugu, herriak eta eskualdeak eta hauek hiriekin lotuko dituzten zerbitzuak eskainiz, betiko tren zerbitzuek egin izan duten bezala.

Bada, mugitu gaitezen orain, bulldozerrak edo hondeamakinak Sakanan ikusi baino lehen. Ordurako borroka galdua legoke eta. Orain da abagunea!



OBJEKTIBOTIK

Deskantsua sustraietara arte

Etxarri Aranatzan, dermioko bideen bazterrean aulki berezi batzuk daude. Zuhaitzak izan diren, baina orain enbor zati, epaitondo edota sustrai solteak diren egur zatiek aulki zein mahaiak egin dituzte, gerturatzeko diren guztiendako merezitako deskantsua eskaintzeko. Deskantsu honek ibiltari edo ez-ibiltari guztiei indarberritzeko aukera emango die, sustraietatik zuzenean etorriko baitzaie indarra.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Kolaboratzailea:
Marina Arevalo Alonso

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirrolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Eskolan eta aparkalekuan lanak eginen ditu udalak

Ikastetxean galdara berria jarri eta bi solairuetako pasabideetako hormak berrituko ditu. Liburutegi ondoko aparkalekua txukunduko du. Hegoaldeko urbanizazioko hamabi partzela udazkenean salgai jarri nahi ditu. Hainbat pertsona kontratatuko ditu

IRURTZUN

Irurtzango Udalak 2.806.885 euroko aurrekontua izanen du aurten. Udalaren diru kontuak EH Bilduren aldeko botoekin eta UPNren abstentzioarekin onartu ziren. Unai Razkin Iriarte alkateak azaldu duenez, "kontuak orekatuak dira, zerbitzu publikoak, eskubide sozialak eta irurtzundarren bizi kalitatea hobetzeko helburua dutenak".

Inbertsioei dagokionez, Irurtzango Udalak Atakondoa eskolan bi lan aurreikusi ditu, biak ere udan egitekoak. Alde batetik, biomasa galdara berria jarriko da ikastetxean. 180.000 euroko aurrekontua du, baina galdara aldatzeko Nafarroako Gobernuaren aurrekontutik 100.000 euro jasoko ditu udalak, EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa bati esker. Bestetik, eskolako bigarren eta hirugarren solairuetako paretak birmoldatuko dituzte: baldosak kendu, pintatu, biniloak jarri eta eskaileran eskubanda jarriko du. Lan horiek 35.000 euro balio dute. Bestalde, udalak berriki eskolako eraikin berrian dagoen estalpean frontoi txiki bat margotu du. "Haurrak han pilotan jolasten aritzen ziren eta margotzeko eskatu zuten".

Bestetik, badira urte batzuk elizak aurri egoeran zegoen zinema zaharra bota zuela. Udalak elizarekin lur sail hori erosteko aurreakordioa du (90.500 euro). Razkinek azaldu duenez, "mugikortasun plana epeka garatuko dugu eta erosketa haren barruan sartzen dugu. Izan ere, inguru horretan aparkatzeko arazoak daude eta gure asmoa da behin lursaila erosita, gauzak ongi, heldu den urtean 20 bat autoren-dako aparkalekua egitea hor. Horrekin batera, liburutegi ondoko aparkalekua egokitu eta aparkatzeko plazak markatzeko 127.000 euro bideratu ditu. "Apar-kalekuko izkinan eskailera eginen ditugu, Larraun kaleko



Musika eskolako lanak baliatuz Larrazpin ere hobekuntza lanak eginen ditu udalak.

"PLANA FUNTSEZKOA DA SUTEEI AURREA HARTU ETA ERANTZUN ERAGINKORRA EMATEKO"

aldamenek autoaren bila joateko buelta guztia eman ez dezaten", azaldu du alkateak.

Aparkalekuaren ondoan dagoen jolas parkea estaltzeko lanak aurten eginen dira, festen ondoren. Udalak 80.000 euro jarriko ditu lan horretarako. Lan hori joan den urteko parte hartze aurrekontuen bidez aukeratu zuten irurtzundarrek. 2023ko 35.000 euroko diru sailari aurten beste 45.000 euro gehitu dizkio udalak lan hori egiteko. Beraz, aurten ez da parte hartze aurrekonturik izanen.

Ongizatea eta kontratazioak

Alkateak nabarmendu duenez, "Oinarrizko Gizarte Zerbitzurako partida handitzen jarraitzen du. Aurten 71.000 euro dira. Horretaz aparte, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak kudeatzen dituen irurtzundarrendako gizarte la-

udal guztien artean), gaztetxokoa 17.850 euro eta igerilekuak 63.000 euro.

Musika eskolako lanak ikasturte berrirako despedituko dituzte. Aldi berean Larrazpi gazte elkartearen egoitzan leihoak aldatu (12.600 euro) eta elektrizitatea berrituko (8.000 euro) dira. Eraikinean eguzki plakak jarriko dira eta aztertzen ari dira eskolan jarduerarik ez dagoenean, udan, sortzen den argindarra igerilekura desbideratzea. "Liburutegiko plaken elektrizitatea udaletxera bideratzen dugu egun", azaldu du alkateak. Bestetik, gaztetxokoa eta liburutegia hartzen dituen eraikina margotuko du udalak (7.500 euro).

Razkinek jakinarazi du bizpahiru astetan despedituko dituztela herriaren hegoaldeko urbanizazio lanak. "Partzela

privatuak eta publikoak daude. Udalak dozana bat ditu eta saldu egingen ditu. Hori arautzeko ordenantza onartu nahi dugu uda baino lehen eta, beraz, salmenta irailetik aurrera litzateke".

Udalaren aurten baso suteen kontrako udal jarduerak jasotzen dituen plana eginen du (7.400 euro). Gobernuak egindako azterketaren arabera Irurtzunean udan baso sutea izateko arrisku handia du. Horregatik, plana egin beharra du udalak. "Plan horrek larrialdiari aurre egiteko hartu beharreko neurriak, giza baliabideak eta baliabide materialak zehazten ditu. Plana funtsezkoa da baso-suteei aurrea hartzeko eta erantzun eraginkorra emateko. Helburu nagusia pertsonak, ondasunak eta ingurumena sute horien aurrean babestea da", argitu du Razkinek.



Larunbaterako dena prestatzeko azken bilera egin dute ekimeneko kideek aste honetan. UTZITAKOIA

"Beste aukerarik ez zen gelditu: Katalanen bidea hartzea"

MANU GOMEZ GENUA A13 HERRI EKIMENEN KIDEA

Etxarri Aranatz independentziari buruzko herri galdeketa egin zela hamar urte beteko dira apirilaren 13an, larunbatean

Alfredo Alvaro Igoa ETXARRI ARANATZ Euskal Herrian independentziari buruzko herri galdeketa antolatzen aurreneko herria izan zen Etxarri Aranatz. Ondoren 207 herritan eginen ziren. Egun osoko egitaraua antolatu du A13 herri ekimenak, Gure Eskurekin batera. Azken Gure Eskuk eguna "aurrera begira jartzeko" baliatu nahi du: "duela hamar urte olatu txiki batek Euskal Herri osoa busti zuen uholdea ekarri zuen, pixkanaka egiten baita Herri Libre Baterako bidea. Beraz, pixkanaka, pausoz pauso egingo dugu guk ere bidea eta hurrengo pausoa larunbat honetan emango dugu", esan du Etxa-

buruk. A13 herri ekimeneko Manu Gomez Genuak Etxarri Aranatz larunbatean antolatutako azalpenak eman ditu.

Ospatu beharra zegoen?

Guk hala baloratu genuen. Eta, bestetik, iruditzen zitzaigun momentua zela ordukoa berriro ere lehen planora ekartzeko. Horiek lotuta antolatu dugu eguna.

Lehen planora ekarri, zer?

Iruditzen zaigu lurralde egiturari buruzko eztabaida pil-pilean dagoela. Bai Katalunian eta Euskal Herrian ere gertatzen ari da, orain dela urte batzuk bezala. Herri galdeketa bidez hori lehen planoan izan genuen duela hamar urte, eta ikusi genuen berriz

jartzeko garaia ere badela. Geroz, horretatik antolatzea erabaki genuen.

Gaia mahaigainean, gizartean eta politikarien agendan?

Bai. Ez da helburu bakarra, baina hori ere bada: herriak duela hitza eta zer izan nahi dugun, horretan azpimarra egiteko aitzakia bat da. Lehenago edo beranduago gertatuko dela iruditzen zaigu, eta ez ariketa demokratiko bat bezala, baizik eta berme guztiekin eta ondorio guztiekin. Ez dakigu zenbat urte pasako diren, baina iruditzen zaigu hori dela, nolabait ere, erdien jartzeko motibo bat.

Lurra jorratu eta ereiteko lana?

Guk oroigarri moduan planteatu dugu. Baina Gure Eskurekin batera ari da elkarlanean. Beraiek ibilbide bat jarraitzeko eta markatzeko asmoa daukate. Bi ideiak uztartzen zirela uste genuen, eta alde horretatik jo dugu.

Zein zabilzate antolakuntzan?

Antolaketan hamar bat lagun elkartzen gara astero, ilbeltz hasieratik-edo. Horietaz aparte, zorionez gure herri hauetan laguntza eskatzen duzunean beti egoten da jende gehiago laguntzeko prest. Zenbaki bat ezin dizut esan, baina jende dezente ari da larunbatekoari begira.

Oroitzenak berriro dituzue?

Batailatxo batzuk tarteka joan dira. Bai, pixka bat nondik nora sortu zen ekimena behin eta berriro... Guretako hamar urte asko dira, eta batzuek gauza pixka bat berria zen orain dela hamar urte zer gertatu zen, eta nondik iritsi ginen galdeketa. Horretarako ere balio izan du, bai, gure artean memoria pixka bat egiteko.

Transmisioa egiteko ere?

Bai. Kontatu dugu 2014an izan zela galdeketa, baina gure prozesua pixka bat lehenago hasi zela, 2012an, Etxarri 2012 ekimenean. Orduan herriaren sorreraren 700 urteurrena betetzen zen eta Castillak Nafarroa konkistatu zuela 500 urte. Eta hor kokatzen dugu pixka bat herri galdeketa jatorria. Etxarri 2012ko ekimen guztia *Izandu ginen, ga eta izanen ga* lelopean egin genuen.

Zergatik ekarri zenuten Katalunian galdeketa eredu Etxarrira?

Esan bezala, 2012an, batez ere, historia memoria berreskuratzen eta zer garen azaltzen ibili ginen. Mahai ingururen bat eta gauza interesgarriak ere egin genituen, zer izan nahi dugun, erabakitze eskubide horren inguruan. Katalunian 2009an hasiak ziren herri galdeketaekin, Arenys de Munten. Ikusi genuen politikoez edo gobernuek ez bazuten gaia aintzat hartzen, herri ekimena gai zela bermeak zituen herri galdeketa bat egiteko. Haiengandik ikasita, eredu Etxarrira ekarri

"HERRIAK DUELA HITZA ETA ZER IZAN NAHI DUGUN, HORRETAN AZPIMARRA EGITEKO AITZAKIA BAT DA"

genuen. Lehenago saiatu ginen, udalaren bidez galdeketa bat egiten 2013an. Baina orduan Nafarroako Gobernuak auzitegi-tara jo zuen ekimen hura gelditzeko. Orduan, beste erremediorik ez zen gelditu: Katalanen bidea hartzea.

Emaitza gogoratzen duzu?

Parte hartzea %42,55 izan zen. Galdera izan zen: Nahi duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan? %94,48 baiezkoa eman zuen, %2,12 ezezkoa eta balio gaberen bat ere egon zen. Emaitzetatik harago, guk baloratu genuen, alde batetik, iritzi guztien topaleku izan zitekeela, eta hala planteatu genuen galdeketa. Eta, bestetik, berme guztiak bete zituen. Inork ez zuen kolokan jarri, prozedura txukuna eta zuzena izan zen.

Zer arrasto utzi zuen galdeketa?

Iruditzen zaigu orduan herria oso aktibatuta zegoela, iritzi ezberdinen artean sinergia handiak eta jendea askatasunez eta modu naturalean gaiez hitz egiteko oso giro polita utzi zuen orduan. Nik ez dakit geroztik berdintsu gauden edo ez, baina oso dinamika polita izan zen bi urte luze haietan egon zena. Jendearen artean giro ona, alaia eta nik uste dut eroso sentitu zela edozein gaietan ere aritzeko. Uste dugu herri galdeketa hori dutela: eztabaida guneak irekitzeko tokia eta jendea bere iritzia edo denek iritzia errespetatzeko aukera.

Ondoren, herri galdeketa mordo.

Arrankudiagan izan zen bigarrena. Guregana jo zuten laguntza eske. Beti esaten dugu lehenengo izateko bigarren bat beharrezkoa dela, bestela bakar bihurtzen zara. Indarra taldeak ematen du. Horretatik, garrantzitsua da atzetik etorri diren guztiak, denak. 208 herritan egin ziren galdeketa eta horietan antolaketa eredu, pixka bat Etxarrira izan zen, elkarlanean aritu ginen. Horregatik, larunbaterako denak daude deituak eta denak gonbidatuta Etxarrira hurbiltzeko.

Zer opatuko dute larunbatean Etxarrira joaten direnek?

Festa xume eta polita opatuko du (egitaraua 13. orrian). Giro polita goizean goizetik. Sakanan ere jende mordo ibili zen ondoren ibarreko herri galdeketa antolatzen. Horiek guztiak ere gonbidatuta daude herrira. Etorri nahi duenak edukiko du aukera egunaz gozatzeko.

Jolas parkea berritzeko prozesua abiarazi dute

Duela 11 urte egindako parkeko elementu batzuk berri behar dira, eta tirolina bat jartzeak espazioa berrantolatzea eskatzen du. Hori dela eta, lakuntzarren parte hartzearekin parkea amestu eta diseinatuko dute, ondoren, auzolanean egiteko

Alfredo Alvaro Igoa LAKUNTZA

Parkea Martxan ekimenaren bidez Lakuntzako jolas parkea berri eta 2013ko lastailaren 12an mustu zen. Ordutik parkean elementu gehiago jarri dira. Baina denborak ere lan egin du, batez ere, auzolanean egin zen eremu ez egituratua. Zenbait mantentze lan eta birmoldaketa behar dira. Gainera, aurreko udalak 30 metroko tirolina bat erosi zuen. Espazioaren erabilera baldintzatzen duenez, non jarri erabaki behar da.

Horiek guztiak kontuan izanda, atzera ere, parkearen inguruko parte hartze prozesua martxan jarri dute Lakuntzan. Udalak deituta hogeitau bat lakuntzar elkartu ziren martxoaren 2an parkean bertan. Hura berritzeko talde motorra sortu dute zenbait lakuntzarrek. Bera da prozesua gidatzeaz eta antolatzeaz arduratu dena. Parkearen eraberritze lanak parte hartzearen bidez egiteko asmoaren berri udaletxean aurkeztu zuten martxoaren 22an.

Apirilean "amesten" fasean sartu dira, adin guztietako lakuntzarren iritzia jaso nahi dute maiatza bitartean. Horren barruan, 12 eta 16 urte bitarteko gazteekin izan ziren apirilaren 5ean. Eta hurrengo egunean haurrekin. Familiekin, eskolarekin eta adinduen elkartekin ere bilerak eginen dituzte. Jakina, edozein herritarrek du iritzia emateko aukera. Dagoeneko eremu horretarako ideia asko jasotzen ari dira. Esaterako, martxoaren 2an honako ideiak jaso zituzten: eskalatzeko eremua, mahai eta banku gehiago, oreka jolasak eta helduendako elementuak, atek lekuz aldatzea eta argiterian hobekuntzak egitea.

Hirugarren fasean jasotako ideien inguruko erabakiak hartu beharko dituzte, zein diren bideragarriak eta zein ez. Eta erabakiak hartuta, espazioa nola



Hogei bat lakuntzar elkartu ziren martxoaren 2ko bileran. UDALA

MAIATZA BITARTEAN IDEIAK JASO, ONDOREN ERABAKIAK HARTU ETA GARAGARRILETIK AUERRERA ERAIKITZERA

antolatu zehaztu beharko da. Horretarako, arkitektoaren laguntza izanen dute. Behin guztia erabakita, azken fasean erakitze garaia izanen da. Segurtasun arauak eta bestelakoak bete behar direnez, enpresa bat arduratuko da tirolina jartzeaz. Baina gainontzeko lanak auzolanean eginen dituzte garagarrietik aurrera.

Ibilbidea

Zinema zaharra kultur etxe bihurtzeko lanak egiteko aldamenean zegoen parkea kendu zen, eta beste toki batera eraman. Toki aldaketan nahiko hondatu zen jolas parkea eta herria haur txikiendako parke egituraturik gabe gelditu zen. Finantza krisiaren ondorioak bete-betean jo zuten garaian udalak ez zuen parkea berritzeko dirurik. Baina hainbat lakuntzarrek bat

egitea erabaki eta parkearen ingurukoak antolatzea erabaki zuten. Hala sortu zen Parkea Martxan taldea 2012ko lastailan. Helburuak: haurrek parke duin bat izatea, elkarlana eta auzolana bulkatzea eta herria egitea.

Taldeak bildu eta helburuak zehaztu ondoren hiru batzorde sortu zituzten: ekonomia, jarduerak prestatzekoa eta parte hartze prozesuaren koordinazioa. Dirua lortzeko helburuz jardueren batzordearen baitan denetarik proposatu zen eta, besteak beste, honakoak egin ziren: Parkea Martxan Eguna, hainbat adinetakori zuzendutako tailerrak, bigarren eskuko bi azoka, eguberritako saskien zozketa, festetan barra eta musika jaialdia.

Haur txikiendako parke egituratua lortzeko helburuz abiatutakoaren asmoa handitu egin zen. Izan ere, Lakuntzako parkeak eremu zabala hartzen du eta hura zatitan banatu zuten. Jolas parke ondoko porlanezko kirol pista berri zuten eta atek, saskiak eta ping pong mahaia jarri zituzten. Belardiaren zati batean parke ez egituratua hartu zuten.

Sakanan erosi eta 1.500 euroko saria irabazi

SDOZEko kide diren establezimenduetan banatuko dituzte zozketarako zenbakiak

SAKANA

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak (SDOZE) Udaberriko Tonbola abiaraziko du apirilaren 15ean. Ordutik eta hilaren 27ra bitartean SDOZEko kide diren establezimenduetan 10 euro baino gehiagoko erosketa egiten dutenek zozketa baterako txartelak eskuratuko dituzte. Saria 1.500 euro dira. Zozketa Altsasuko Foru plazan egingen da apirilaren 27an, 18:30ean. Zozketako txartelak dituztenek plazan jarriko den ontzi batean sartu beharko dituzte, eta handik aterako dutena izanen da sariduna. Saria eskuratzen duenak baldintza bat bete beharko du: 1.500 euroak SDOZEren kide diren establezimenduetan gastatu beharko diu, gutxienez hamarretan. Elkarteak jakinarazi duenez, hilaren 27ko zozketa VI. Altsasuko Merkataritza Festaren barruan egingen da zozketa.

Hasi dira botoa ematen Bakaikun eta Iturmendin

Trinitate ospakizunak orain arte bezala domekan ospatu edo larunbatera aldatzera erabakiko dute

BAKAIKU / ITURMENDI

Trinitate Eguna, larunbatean edo domekan, noiz ospatu erabakiko dute bakaikuarrek eta iturmendiarrek. Horretarako herri galdeketa antolatu dute bi udalek, biek antolatzen baitute ospakizuna, urtero antolakuntzan txandakatuz. Galdeketa parte hartu nahi duten herritarrek honako galderari erantzun beharko diote: zein egunetan nahiago duzu Trinitate Eguna ospatzea? Galdeketa 16 urtetik gorakoek iritzia emateko aukera dute. Botoak batu eta emaitza bakarria izanen da. Herri galdeketa emaitza baliagarria izateko parte hartzea %20 baino handiagoa izan beharko du. Ateratako emaitza beren eginen dute udalek. Herenegun zabaldu zen botoa emateko aukera. Gaur, ostirala, udaletxeko bulego ordutegian botoa eman daiteke. Bihar 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

GUTUNAK BIRRAMAMARI LANTEGIA FAMILIAN

Apirilaren 27an, larunbatarekin
11:00etatik 13:00etara
Lakuntzako udaletxeko haur txokoan

NORK ESKAINIKO DU?

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria
liburuaren egile eta literatur
dinamizatzaileak.

NORENDAKO DA?

LH3tik gorako ume eta
gurasoendako.

Izen-emateak
euskara1@sakana-mank.eus
helbidera mezua bidaliz

Elkartasunari bideratutako kulturartekotasuna

Hainbat eragilek elkarlanean kulturen arteko zikloa antolatu dute. Aurtengo berritasunak dira, batetik, elkartasunari zuzendutako zikloa izanen dela. Eta, bestetik, Arakilgo Udalak ere ekimenarekin bat egin duela

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN/ALTSASU Irurtzunek kulturen arteko zikloa hartuko du aurtengo. Baina aurtengo berezitasuna da zikloa elkartasunari eskainitakoa dela. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuko gizarte hezitzailea Begoña Zestau Baraibarrek azaldu duenez, "aurten antolatu diren ekimenak, beste pila baten artean, elkartasuna praktikan jartzea dutelako helburu. Zerbitzutik lan egiteko dugun moduari jarraituz, herri-tarrek proposatutakoak eginen

dira. Aurreko urtean hiru eguneko zikloa izan zen, aurten lau. Eta bakoitzean elkartasuna landuko dugu, bai tokiko, eskualde, Iruñerria eta gure mugetatik kanpo ere".

Aurtengo berritasuna ere bada Arakilgo Udalaren parte hartzea. Arakilgo kultura teknikari Josu Dufur Otheguyk esan zuenez, "Sakana ibar bakarria izanda, ulertzen dugu kultura anitzak daudela. Zikloak kultura horien arteko topaguneak sustatzen ditu. Zinegotziekin lehenik eta

segituan Begoñarekin hitz egin ondoren, Arakilek bere txikitasunean ekarpena egin nahi zion aniztasun horri".

Hasteko, azoka

Kulturen arteko elkartasun zikloari hasiera emanen dio elkartasun azokak, Irurtzongo plazan egingen dena apirilaren 13an, larunbatean, 11:00etatik 14:00etara. Azokaren antolakuntzan parte hartu du Margarita Giorgievak. Bera beste hainbat jatorritako emakumezko irurtzundarrek batera gaztelania praktikatzera eta bertako kultura ikasteko elkartzen dira asteartean. Azaldu duenez, "hainbat astez lan handia egin dugu azokarako emandakoak jasotzen, sailkatzen eta Arakilgo Udalak utzitako lokal batean gordetzen". Giorgievak esan duenez, saltzeko jasotako artean daude haur, gazte eta helduendako arropa, jostailuak, liburuak, imitaziozko bitxiak eta beste hainbat gauza daude. "Larunbaterako dena prest dugu, eta taldekideak azokan saltzen egonen gara", jakinarazi du Giorgievak.

Zestauk azaldu duenez, salgaiak modu onean eskuratzeko aukera izanen du jendeak. Azokan lortutako dirua Jerejef elkartearendako izanen da. "Elkartea Senegalen lan egiten du. Hamaka proiektu ditu hezkuntza, osasuna, sentsibilizazioa, ingurumena, haur eta gazteria, prebentzioa eta beste hainbat arlotakoak". Azokan salmahaiak egoteaz aparte, elkartearen jarduna ezagutzeko aukera izanen da. "Jerejef elkarteak kideak Irurtzunen izanen dira. Argazki erakusketa jarriko dute, jenbe jolea etorriko da eta Senegalgo doinuak joko ditu, Senegalgo oihalekin txapak egiteko tailerrak



Kultur arteko elkartasun zikloaren aurkezpena Irurtzunen.



Altsasun Sakana Harrera Haranaren aldeko elkartasun azokaren aurkezpena.

izanen da, belarritakoak egiteko tailerra, trentzak, Senegalgo jakiak salduko dituzte, musika eta beste izanen dira", azaldu du Zestauk. Kooperazio jolasetan aritzeko aukera ere izanen dute plazatik pasatzen direnak.

Hurrengoak

Zikloak Satrustegin izanen du segida maiatzaren 17an, 17:00etan. Herriko sendabellarrak ezagutzeko hitzordua izanen da. "Celia satrustegiarrak bertako sendabellarrak ezagutzeko bisita gidatua egingen du. Haiek nola prozesatu behar diren ere azalduko du", azaldu du Dufurrek. Gaineratu duenez, "talde zabal batekin gauzak korapilatu daitezkeenez, parte hartzaile kopurua mugatuko dugu. Beraz, alde zuzenetik

izena eman beharra dago arakil-kultura@gmail.com helbidera idatziz edo 634 584 226 telefono zenbakira hots eginez".

Kulturen arteko elkartasuna ehuntzen ekimena maiatzaren 18an; 12:00etan Irurtzunen egingen da. Zestauk argitu duenez, "aurreko urteko esperientzia baikor bati jarraituz, Irurtzongo jostunen topaketa egingen da. Norberak plazara josteko bere zaletasunak aterako ditu: ehonziak, kakorratza, gurutze puntua... Bakoitzak atsegin duena". Gizarte hezitzailea jakinarazi duenez, "egun horren aurretik belaunaldi eta jatorri anitzeko emakumeen arteko elkartea izanen da. Hor jakintzak partekatuko dituzte. Eta aipatutako egunean, plazan, euskal kultu-

25 URTE
UHINAK EUSKARAZ ALAITZEN

Zatoz gurekin ospatzera!
MAIATZAK 4

Bazkarirako eman izena

beleixe 107.3 FM **25 URTE**

948 567 074 - 661 523 245 - irratia@beleixe.eus
Nagusia, 10 - Etxarri Aranatz



rarekin zerikusia duten hainbat jantzi josiko dituzte. Horiek Atakondoa eskola publikora bideratuko dira". Azken horien inguruko xehetasun gehiago etorkizunean emanen dituztela azaldu du Zestauk.

Elkartasun zikloa klasiko batek despedituko du: Munduko Arrozak. Garagartzaroren Iean izanen da, 10:00etatik aurrera, Irurtzungo plazan. "Itxiera polita emanen dio zikloari. Eki-menak Irurtzunen bere izaera badu. Aurtengoa 13. edizioa izanen da. Jendeak ezagutzen du, eta etortzen da aniztasun hori ezagutzera, hurbiltzera eta dastatzera. Ez jaten delako bakarrik, baizik eta elkarren ondoan elkar ezagutzeko pausoak ematen ditugulako".

"Ikasleak boluntario gisa azokan lanean egonen dira"

UXUA AZPIROZ ARMENDARIZ ALTSASU BHIKO ELKARTASUN ESKOLAKO KOORDINATZAILEA

Hirugarren urtez elkartasun azoka eginen da Altsasun, igandean izanen da. Sakanako Mankomunitateko Aintzartean kulturartekotasun zerbitzua, Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutua eta Sakana Harrera Harana ari dira ekimena antolatzen. Jasotakoa azken erakunde horren jarduna sustatzeko izanen da. Ikastetxeak bere parte hartzean pauso bat gehiago eman duela azaldu du irakasleak.

Zer da elkartasun eskola?

Nafarroako ikastetxeetan dagoen programa bat da, eta pentsatuta dago garapenerako hezkuntza, giza eskubideekin eta kulturartekotasunarekin harremana duten proiektuak garatzeko.

Zergatik erabaki zuen institutuak elkartasun eskola izatea?

Gaur egun gizartea ikusten baldin badugu, eta gure gelak gizartearen isla dira, ezin da ukatu kulturartekotasuna gaur egungo erronka garrantzitsuenetarikoa dela. Eta horri eutsi eutsi nahi diogu, gure gelak eta gure mundua anitza delako eta beharrezkoa delako.

Nola lantzen da kulturaartekotasuna gelan?

Guk filosofiako mintegitik, hezkuntza arreta eremutik eta ekonomia eremutik eusten diogu hainbat proiekturen bitartez.

Proiektu horiek kalean badute isla?

Bai, hala da, eta hala saiatzen gara. Eta horietako bat da elkartasun azoka, aurten Sakana Harrera Haranakoekin elkarlanean antolatu duguna. Aurten uste dut dela hirugarren urtea elkartasun azokan parte hartzen duguna.

Institutuak zer ekarpen egiten dio azokari?

Orain arte parte hartu dugu institutuan egin ditugun proiektuen emaitzak erakutsiz. Esaterako, joan zen urtean kamishibai txoko bat izan genuen. Han Osamaren historia kontatu genuen kamishibai forman. Kamishibaiak Japonian ipuinak kontatzeko teknika edo arte bat da. Guk, proiektuaren barruan, Osamaren bisita izan genuen, pateran etorritako mutil baten istorioa. Gure ikasle jaso kamishibai batean adierazi eta guk azokan interpretatu egin genuen. Aurten Osamarena berriro egingo dugu, zeren arrakasta handia izan zuen. Baina Afrikako beste historia bat kontatuko dugu ere, oraingoan Ugandakoa: Rutensia Madi tribuko neska baten istorioa, futbolearen aritu nahi zuena.

Zer gehiago ekarri zenuten azokara?

Artelanak, guk erabili genuen materiala ere: liburuak, marrazkiak eta beste hainbeste. Aurten horiez aparte txapa tailerra ere eginen dugu elkartasun azokan.

Institututik ekarri, zeinek?

Orain arte ikasleek parte hartu dute lanak erakusten, baina aurten aurrerapauso bat eman dugu eta ikasleek ere parte hartuko dute: boluntario gisa azokan lanean egonen dira. Lanean arituko diren gehienak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailakoak dira. Baina kamishibaiak interpretatzen, hainbat hizkuntzatan irakurtzen, DBHko 1. mailatik hasita maila guztietako ikasleak izanen dira, D eta A ereduak.



"GAUR EGUN GIZARTEA IKUSTEN BALDIN BADUGU, ETA GURE GELAK GIZARTEAREN ISLA DIRA"

Azokari ekarpen gehiago egin diezue?

Bai, bai. Aurten jada parte hartzea aktiboa izan gara hasiera-hasieratik. Institutuan gauzak biltzen egon gara bi hilabetez. Astero-astero jasotzen genuena Curriculum Egoituko Programako zortzi ikasleek Sakana Harrera Haranakoekin loka-lera eraman eta han antolatu dute.

Zer jaso duzue?

Bilketa oso arrakastatsua izan da, kalitate handiko gauzak eta, gainera, askotarikoak daude: jostailuak, kirola egiteko arropa, kirola egiteko tresnak, liburuak, teknologia... denetarik dago. Guztia elkartasun azokan salgai egonen da eta ikasleek beraiek salduko dute. Oso harro gaude hartu duten erabakiaz, zeren hor erakutsiko dute elkartasuna dutela errefuxiatutako pertsonekin. Ilusio handiarekin egongo dira salmenta puntuetara lanean.

Kulturartekotasun eskola izanda, aurten bisitarik izan duzue?

Bai, oso bisita berezia izan genuen lastailean. Izan ere, Bartolina Sisa erakundeko, Boliviako Emakume Nekazari Indigenen Konfederazio Nazionaleko hiru kideren bisita izan genuen lortia kultur gunean. Aipatu beharrekoa da Hego Ameriketako landa eremuko emakumeen lehen erakundea dela. Bere izena Bartolina Sisa heroi aimararengatik hartu dute; hark espainiarren kolonialismoaren kontra borrokatu zuen.

Zertan aritzen dira?

Guk aurretik Bartolina Sisaren inguruan zerbait landu genuen. Haiek hiltzaldian elikadura subiranotasuna, pobrezia, genero berdintasuna eta lan duinarengan inguruan aritu ziren gure ikasleekin. Aipatzekoa da ere oparixto bat ekarri zigutela Whipala, indigenen bandera bat. Ondoren gure ikasleek klasean egin zituzten lanak eman zizkieten. Hau da, guk Bartolina Sisari, haien heroinari idatzi genien eskutitz batzuk azalduz gaur egun nola zegoen emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko borroka eta herri zapalduen egoerak munduan. Oso lan polita izan zen. Asko ikasi genuen. Eta eskutitz horiek beraiei eman genizkien haien komunitatean eta komunitateko gazteei irakurtzeko. Igandean Whipala ekarriko dugu elkartasun azokara. Baita klasean egindako lanen erakusketa, kartelak eta Whipala banderak personalizatuak ere bai.

Ikasturtea despeditu bitartean, beste egitasmorik baduzue?

Hurrengo erronka Munduko Arrozaren jardura da, maiatzean, egongo izango da, eta, zalantzarik gabe, parte hartuko dugu. Baina aurretik, igandean, elkartasun azoka bisitatu.



KOLABORAZIOA

Sakanako euskal onomatopeiak (II)

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

furra-furra Purra-purra, gustura, gozo-gozo. Gehienbat loarekin lotzen den onomatopeia dugu hau. *Antxe geldittuek ezpondan, furra-furra lo!* (Hantxe gelditu duk ezpondan, purra-purra lo!)

furrut ein, furrutekan Zurrut egin, zurrutaka. Edaterakoan egiten den soinuaren onomatopeia dugu. *Ik ze nei dek, zopak eta furrut?* (Hik zer nahi duk, zopak eta zurrut?) Burundan ere bai azken honen moduan: *Zopak eta furrutaka* (?) (Dena nahi).

gir-gir-gir Olioak irakin egiterakoan ateratzen duen soinua. Pertsoneri ere egokitzen zaie, bere onetik aterata daudela adierazteko. *Ori eztek arte oneskue, yozin gauzangati jartzen dek gir-gir-gir!* (Hori ez duk arte onezkoa, edozein gauzarengatik jartzen duk gir-gir-gir!)

gurrumiau Katuaren urruma. Urdiainen *marrumiau*.

ijili-ajala Umore onean, barrez, gozatuz, garrantzizko ezere egitekorik gabe. *Aste guzie yaamatan yau ijili-ajala, ezeen ajolaipee!* (Aste guztia eramaten diagu ijili-ajala,

ezeren ajolarik gabe!) Burundan ere bai aditz perifrasi moduan: *"ijili-ajala ibili*. Algaraz, algara eginez. *Gaztiek ijili-ajala daitza 'gazteak ijiliajala dabilta [algaraz, parrandan]'*."

julu Ulua, otsoena esate baterako. Bestalde, norbaitek gaizki abesten duela adierazteko ere erabiltzen da. *Aik ittuben julu klasiek, bota zittubenak!* (Haiek hituen julu klaseak, bota zituenak!)

karrask Hausturaren onomatopeya dugu hau. *An infernuben izanen da marraka eta ortz karraxka*. (Han infernuan izanen da marraka eta hortz karraska) Burundan ere bai horrela: *"Ezurrak karrask in dwa 'hezurrak karrask egin dit'.*

kask, kaska Golpearen onomatopeya. *Eta quartu bee, kask eman zioan belaunien!* (Eta ohartu bage, kask eman zioan belaunean!) Burundan amaieran bokal irekia daramala erabiltzen da.

kike Zotina. *Ostuko yon zerbait amai, kike asi dakik ta!* (Ostuko hion zerbait amari, kika hasi zaik eta!) Burundan oiloei egokitua erabiltzen da: "Kika hotsa, oiloen zotina. *Kikia duka*

oilworrek 'kika dauka oilo horrek'."

kilixki-kalaxka, kilixkoloxka Jostailua, 'dipsalus silvester' sasiaren adarrekin egindakoa. Honi eragindakoa horrelako soinua ateratzen du. *Jostailuik ez zoonien kilixki-kalaxkak eitten giñuzkiyan!* (Jostailurik ez zegoenean kilixki-kalaxkak egiten genitian!) Burundan bigarrena: "Txintxirrina; kaskabiloz edo kriskitinez osaturiko jostailua, bularreko haurrak jostarazteko erabiltzen dena.

kirris-marras, kirri-karra, kirris-karras, kirris-korros Arrailduz, txikituz, karraskatuz, erabat hautsiz ohartzerako. *Guu txakurrek kirris-marras jan zittuk ezurrek!* (Gure txakurrek kirris-marras jan ditik hezurak!) Bigarrenetik aurrera Burundan zentzu honetan eta igelaren korroka gisa ere bai: *"Kirri-karra jan. Harra kirri-karra jaten. Ubaxak kirri-karra daitza kantaitan 'igelak kirri-karra dabilta kantatzen'. Izotz plakia kirriskarras austen"*

kiski-kaska, zirrin-zarran, zirti-zarta Gelditu gabe aritu zerbaiten, berdin jaten nola egurra txikitzen, esate baterako. *Kazkar yutsina bota dau; bolo zarronak, kiskikaska!* 'kazkabar erauntsia bota du; bola tzar onak, kiski-kaska!'"

kol-kol-kol yan, zinga-zinga Gogo handiz eta gelditu gabe edan. Lehena gehienbat urarekin erabiltzen da eta bigarrena, aldiz, ardoarekin. *Ardwa botellatik, kol-kol-kol, ustu 'ardoa botilatik, kol-kol-kol, hustu'.*

korrosk Hortzekin zerbait txikitzerakoan ateratzen den soinua adierazten du.

koxk Golpe txikiaren onomatopeya da hau, kask baino txikiagoa.

kurrixke, kurrin-kurrin Txerriek egiten soinua edo garrasia. Bigarrena, zentzu honetan Burundan eta Etxarri Aranatzan haur joko baten ekintza moduan, eskua mahaian edo lurrean behera



begira eta zabal-zabalik jarririk jokuko galtzaileak, irabazleak esku gainean egiten zizkion lau ekintzetako hirugarrena: *atxiomixka, bixi-bixi, kurrin-kurrin, plaxt-plaxt*.

mara-mara Eurrez, ugari. Gehienbat elurrarekin erabiltzen da.

mar-mar, marmarrien, marmarres Murmurazioa, marmarra, marmarrear, marmarrez. Gaztelaniako 'refunfuñar' adierazten du. *Sortwik no raso; marmarra besteik eztoz aitzen 'sorturik nago arras; marmarra besterik ez dut aditzen'.*

marraka Ahuntz eta ardiaren soinua.

marrius-marrius Behiak, bereziki, hausnarrean daudenean egiten duten soinuaren onomatopeya.

mauka-mauka Bi masailak erabiltzen den onomatopeia hau, presaka eta gogo biziz jaten ari dela adierazteko. *Ogia, besteipe, mauka-mauka jaten 'ogia, besterik gabe, mauka-mauka jaten'.*

mumua Behia, haur hizkeran, muu egiten duena.

pil-pil Momentu edo unerik egokienean dagoenean zerbait, pil-pilean egoten da.

plisti-palasta Ontzi batean dagoen likidoaren mugimendua.

pinpi-paunpa Kolpeka, txantxarrik eta etenik gabe.

plisti-plasta Uretan ibili, erabat sartuta nola oinez gainean. *Etxiaño plisti-plasta etor nok ein deen auriyaki!* (Etxeraino plisti-plasta etorri nauk egin duen euriarekin!)

pol-pol Uraren bor-borra, bai naturan sortzen denean, nola egosteko orduan. Etxarri Aranatzan Polpoliturri toponimoa dago.

pur-pur-pur Barrearen onomatopeya da, batez ere ezin jasan dagoenean. *Guartu*

ezpeiz dee an yonduek pur-pur-pur farres! (Ohartu ez bahaiz ere han egon duk pur-pur-pur barrez!)

tar-tar Hitz jario amaitezina, kalapita. *Noiz isilduko zaa beinguen, beti tartarrien zailte ta!* (Noiz isilduko zara behingoan, beti tar-tarrean zabilta eta!)

tirriki-tarraka Alde batetik bestera zerbait herestean eramanez ibili. Hankak herrestan ibili, besterik gabe, ere bai.

ttirin-ttirin Lanean erdi ihesi ibili, denbora pasa alde batetik bestera. *Egun ososue ttirin-ttirin pasatzen dik, fundementuko eze ein bee!* (Egun oso-oso ttirin-ttirin pasatzen dik, fundamenduko ezer ere egin bage!)

txir-txir Elurra eta batez ere euria era leunean baina gelditu gabe botatzen duenean. *Goiz guzien txir-txir aittu dek auriye eta quartziako erabat txelatuik geldittu nok!* (Goiz guztian txir-txir aritu duk euria eta ohartzerako erabat blaiturik gelditu nauk!)

txor-txor Soinu leun eta jarraia onomatopeya. Etxarri Aranatzko toponimian horrela esaten zaio uharka eta erreka bati Lizarrusti aldean. **zarrakataplan** Lihoa egiteko makinaren soinua. *Fábrica de zarrakataplan XX*. mendeko liho lantegiari horrela esaten zioten Etxarri Aranatzan.

zastako, zaplastako, zizteko, zartako Kolpe ezberdinen izenak, ateratzen duten soinuaren arabera. Lehen hirurak aurpegiaren emandakoak dira eta, laugarrena, edozein tokitan.

zizi-maza Kontsonante txistukariak behar bezala ahoskatzen ez dituenari egokitzen zaio. Gehiegi edandakoan ezin hitz eginez dabilenari ere zizi-maza dagoela esaten zaio.

DUELA 25 URTE...



Sexualitateaz Bil Tokin

Lakuntzako gazte elkarteak aurretik HIESari buruzko tailerra hartu zuen eta sexualitatea jorratu gabe gelditu zenez, segida egitea erabaki zuten. Aztertutakoan artean zeuden: emakumezkoen auto ezagutza, antisorgailuak, sexualitatea eta erotismoa terminoen bereiztea eta beste hainbat. Apirila erdialdetik maiatzaren hasierara bitartean egin zen, lau saiotan. Etxarri Aranatzko COFESeko orientatzaileak eman zuen.

MASKULINITATEEI BURUZKO TAILERRAK

2024

LAKUNTZA | MANKen | 10:00 - 14:00

- Maiatzak 4
- Ekainak 1
- Beste 3 saioak iraila eta urrian

Izena emateko:

berdintasuna@sakana-mank.eus

948 46 48 67

ALTSASU | Gure Etxean | 10:00 - 14:00

- Apirilak 20 eta 27
- Maiatzak 11 eta 25
- Ekainak 8

Izena emateko:

berdintasuna@altsasu.net

948 56 48 23



Diseinua: **GK**



Mank
s a k a n a





Egitasmoa sustatu zuten erakundeetako ordezkariak izan ziren aurkezpenean.

"Herria bizitzeko modua aldatu zitzaien"

SARA SALAZAR ROMO, ARANTXA ERBITI BELOKI ETA AIZAGA ZEBERIO PETRIATI
'Elkar zaintzen duten emakumeak' egitasmoa jarriko dute martxan Altsasuko Udalak, Anitzarteanek eta Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Altsasuko Udaleko Kirol eta Berdintasun sailletako teknikariak, Altsasu, Olazti eta Ziordiko oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte langile eta hezitzaileak, eta Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzuko gizarte hezitzaileak elkarlanean garatu dute *Elkar zaintzen duten emakumeak* egitasmoa. Proiektuaren helburu nagusia da Altsasuko

emakumeen ongizatea hobetzea, arrazoi anitzengatik zaurgarritasun egoeran dauden emakumeei arreta berezia jarrita. Egitasmoaren ardatza ariketa fisikoa eta emozioen lanketa dira. Aurrenekoetik 39 saio izanen dira eta 12 atzenekoetatik.

Nolaz sortu da egitasmoa?

Aizaga. Joan zen urtean sortu zen. Garai hartan Altsasuko Udalaren Emakume eta Gizonen

Berdintasunerako II. Plana ebatzitzeko parte hartze prozesua egiten ari ginen. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko gizarte hezitzaile Begoña Zestau Baraibarrekin elkarlanean beste lansaio bat egin genuen, hartan hainbat jatorritako emakumezko altsasuarren beharrak, kezkak eta abarrak ezagutu genituen. Zenbait emakumezko helarazi

ziguten askotan bakardadea sumatzen zutela, oso zaintzari emanak bizi direla, batez ere beraien seme-alaben eta bikoteen zaintzara, eta beraiendako denborarik ez zeukatela. Estres egoera horretan bizi zirela, nahiz eta momentu hartan ez zuten horrela adierazi. Eta behar zutela guk udaletik zerbait antolatzea etxetik pixka bat ateratzeko aitzakia bat edukitzeko, beste emakume batzuk ezagutzeko eta beraien osasuna zaintzeko. Eskaera eta proposamen horri heldu eta hainbat zerbitzutako teknikariak harremanetan jarri ginen, eta lankidetzara proiektu honi forma eman diogu.

Kezka eta behar horiei buelta emateko zer prestatu duzue?

Sara. Ariketa fisikoa egiteko saioak eta, gainera, emozioak lantzeko saioak ere bai, emakumezko horien egoera landuko da, ezagutzeko eta aurrera eramateko haien bizitzan. Ariketa fisikoaren aldetik helburua da gozatzea, ariketa fisikoa egitea zer den probatzea eta ondo sentitzea ariketa fisikoa egin ondoren. Ea pixkanaka gai garen haiek beraien bizitzetan ariketa fisikoa sartzan, eta modu aktibo batean bizitzea. Ez bakarrik besteengandik kezkatzea, baizik eta bakoitzak bere gorputzari garrantzia ematea. Gorputza lantzen bada, ondoren emozionalki hobeto zaude. Talde batekin lan egindako ariketa da, onura fisikoez aparte bestelakoak ere baditu. Haiek gustura bukatu zuten saio pilotua egin genuenean eta aurreneko errepikatzea pentsatu dugu, emakumezko gehiagori parte hartzeko aukera emanez. Eta hemen gaude.

Zer egingen dute ariketa fisikoa lantzeko?

Sara. Daukagun irakaslearekin denetarik proba dezakete. Prest dago Zumba emateko, Core lantzeko, indar ariketak, luzaketak... Eskaintza zabal bat izanen dute, ariketa errazekin, guztiek lasai jarrai dezaten, eta gozatzeko. Gaur bilera egingen dugu, elkar ezagutzeko. Bilera hori garrantzitsua izango da partaideen nahiak jakiteko, irakasleak ikus-

teko zer nahi duten eta saioak egokitzeko. Taldea nahiko heterogeneoa denez, begiratu behar da ere emakumezkoak zer baldintza fisikotan dauden, esandakoa, gustura egoteko eta ariketak haien nahietara egokitzeko.

Non egingen dituzte kirol ariketa horiek?

Sara. Printzipioz astean bi saio egingen dira Garbitoki eraikinean. Asmoa ere badago mendi txango bat egiteko. Pasa den urtean egingen zuten eta gustura egon ziren. Horrela haiek ere beste baliabide batzuk izanen dituzte, zer mendi daukagun ezagutu eta haien kabuz egiteko. Kirol azpiegiturak ikustera ere joango gara; ikus dezaten zer instalazio ditugun, zein aukera daukaten haien kabuz egiteko, edo udalean zer eskaintza daukagun, probatzeko eta ikusteko. Ariketa fisikoa egiten apirilaren 15ean hasiko dira, garagarriaren 13ra arte.

Nola landuko dute emozioen arloa?

Arantxa. Horretarako, Ana Beaumont psikologoarekin harremanetan jarri gara. Ordu eta erdiko saioak izanen dira, hamabostean behin egingen direnak. Saio bakoitzean lantzen diren gauzek hausnarketa behar dute, horregatik garrantzitsua iruditzen zitzaien saioen artean epe hori jartzea. Landuko dituzten gaiak emakumezkoek beraien ekarritakoak izanen dira, beraien mahai gainean jarritakoak dira. Ez dago definituta. Lehenengo da: zer nahi duzue? Zeintzuk dira zuen beharrak? Hori pixka bat landuko dituzte. Eta iruditzen zaigu taldeak garrantzia duela, zeren, azkenean, profesional bat dago, baina denen artean saiatzen dira, norberak egoerak jarritzeko ideiak ematen. Autoestimua-ekin lotutako aholkuak izango lirakeke. Badaude batzuk nahiz eta jendez edo senidez inguratu-ta egon, bakardadearen sentimendu hori dutenak, kontzientzia hartu eta zer irtenbide edo zer aukera dituzten aztertuko dute. Ezagutza. Zeren batzuetan ez dugu geure burua ezagutzen, eta lehenengo gauza da hori. Eta geure burua ezagutzen ez dugunez, irtenbideak edo aholkuak non nondik jaso ez dakigu.

Egoera berean jende gehiago ikusi, eta elkarrekin aurrera egiteko?

Arantxa. Hori oso-oso garrantzitsua da. Iruditzen zaie agian bakarrik daudela, edo: "niri hau gertatzen zait, eta hau gertatzen zaidan bakarra naiz". Eta par-

"LANDUKO DITUZTEN GAIK EMAKUMEEK BERAIEK EKARRITAKOAK IZANEN DIRA"

tekatuz taldearen laguntza jasoko dute. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan guk antzeko proiektu bat genuen eta horretaz konturatzin ginen. Alde batetik, badu zailtasun bat. Ez gaudenez partekatzen ohituta, hasieran agian kosta egiten zaigu gure arazoak partekatzea. Baina behin esperientzia hori bizita bai, kontzientzia hartzen dute, eta ikasketak da: "zeinen ongi, denon artean irtenbideak lortzen ditugula".

Zein izan zen saio pilotuaren zuen eta haien balorazioa?

Aizaga. Egia esan balorazioak oso onak izan ziren. Horretarako bakarrik lan saio bat egin genuen abenduan. Emakumeekin elkartu ginen eta beraiek oso eskertuta zeuden. Aipatzen zituzten alderdien artean, esaten ziguten egindako jarduerak fisikoak eta emozionaleko saioak baliagarria izan zitzaizkiela emakume gehiago ezagutzeko, kalera ateratzen zirela baina ez lehen zeukaten beldur horrekin-edo. Adibidez, jarduerak fisikoak herriko emakume batek gidatzen zuenez, emakume hori ere ezagutu zutela. Herria bizitzeko modua aldatu zitzaizela esaten zuten. Eta lehen aipatu dugun bakardade egoera horri buelta emateko tresnak edo jarri genituela. Guretako hori oso inportantea izan zen, zeren helburuetako bat hori zen. Horregatik, erabaki dugu aurten proiektua bere zera guztiarekin jarraitzea. Baina balorazioak oso-oso eman korrak izan ziren. Eta beraiek eskatu ziguten, mesedez, proiektuarekin jarraitzeko.

Oraindik izena emateko aukera dago?

Aizaga. Aurten bi talde osatu ditugu. Aurrenekoa apirila eta garagarri artean ariko da. Talde hori dagoeneko beteta dago. Bigarren taldea irailaren 23tik azaroaren 28ra bitartean izanen da. Dagoeneko batzuek interesa dute. Interesa duen Altsasuko edozein emakumerendako ere irekita dago izen ematea. Horretarako, gurekin harremanetan jarri beharko dute. Hona harremanetarako bideak: Berdintasun Saila, berdintasuna@altsasu.net edo 948 56 48 23; Kirolak Saila, kirolak@altsasu.net edo 948 56 34 10; Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, ssbaltsasu@ssbaltsasu.eus edo 948 46 76 62 eta Anitzartean anitzartean@sakana-mank.eus edo 648 070 710.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 12

ALTSASU Gazte agenda.

Betiko jolasak.
18:00etan, *Intxostiapunta gazte gunean.*

ARBIZU Bakarriketa saioa.

Joxe Aldasoro etxarriarren bakarriketa saioa, Arbizuko ikastolaren 50. urteurrenaren ikastolak herriari egitasmoaren barruan.
19:00etan, *Argibidea elkarte.*

LAKUNTZA Aurkezpena

Lakuntza, tradizio metalurgikoaren historiaren bilketaren aurkezpena.
19:00etan, *kultur etxean.*

OLATZAGUTIA Literatura solasaldia.

Olaztik irakurle taldea: *El silencio de las hayas* Mikel Alvira idazlearekin.
19:00etan, *liburutegian.*

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Quosque Tandem Abutere Zuk Performing Arts konpainiaren dantza ikuskizunaren mustutzea: Jorge Oteizaren obran oinarrituta, Itsaso A. Cano dantzari eta koreografoak Oteizaren unibertsoan, euskal konstruktibismoan eta 1963an saiakeran oinarritutako lana. *Nafarroako Dantza Garaikidea* programaren eskutik. Aurreko astean egoitza tekniko eginen du kultur gunean.
19:00etan, *lortia kultur gunean.*

ETXARRI ARANATZ Pilota jaialdia

Lehenengo partida: Mugiondo – Cuairan / Nazabal – Lazkoz; bigarren partida: Retegi Bi – Aaron Arbizu / Victor – Bergera. Arbizuren Garfe promotorarekin debuta izanen da.
22:00etan, *Euskalerrari pilotalekuan.*

LARUNBATA 13

ALTSASU Txirindularitza irteera

Barranka Txirindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Apotara, 44 kilometroko ibilbidea.
08:30ean, *Zumalakarregi plazan.*

ETXARRI ARANATZ Erabakiaren bidean eguna

A13 herri galdeketa hamargarren urteurrena.
10:00 Erakusketa.
11:00 Auzatea.
11:30 Erraldoiak eta gaiteroak.
13:15 Ekitaldia, plazan: Erabakiaren bidean!
13:45 Sakana Kantuz.
15:00 Herri bazkaria, frontoian.
17:00 Kuxkuxtu txaranga.
20:00 Trikindatz taldearekin dantzaldia.

ALTSASU Ikastaroa.

Lehen sorospenak ikastaroa. 14 eta 30 urte bitarteko gazteendako.
10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, *Intxostiapunta gazte gunean.*

IRURTZUN Elkartasun azoka

Elkartasuneko bigarren eskuko azoka, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Irurtzungo Emakume Taldeak antolatuta. Txoko desberdinak egonen dira: musika eta dantza, salmenta, hausnarketa eta pintxoak.
11:00etatik 14:00etara; 12:00etan jolas kooperatiboak. Plazan (eguraldi txarrarekin Barazkigunen).

OLATZAGUTIA Irteera.

Gazte Sagardotegia: Etxeberria Sagardotegira irteera.
13:00etan, *autobus geltokian.*

ETXARRI Bazkaria eta antzerkia.

Arakilgo Emakume Taldearen bazkaria eta, bazkalostean, Lorena Arangoaren antzezlanaren emanaldia.
13:30ean, *Iratzar jatetxean.*

ALTSASU Antzerkia.

Ezkaba antzezlanaren emanaldia, Iluna Producciones konpainiaren eskutik: Ezkabako espetxeko bizitza nolakoa izan zen, eta bertako presoen, haien familien eta elkartasun sareen bizitza eta ihesaldia eszenaritzen ditu. Gaztelaniaz. Sarrerak: 10 euro.
19:30ean, *lortia kultur gunean.*

LAKUNTZA Kontzertua.

Eñaut Elorrietaren *Fantasia* kontzertua. Sarrerak: aurretik, 12 euro; egunean bertan, 15 euro.
20:00etan, *kultur etxean.*

ALTSASU Jaialdia.

Exilium musika elektronikoko jaialdia: IGS, Potox, Deathbass eta Morti. Sarrerak: 5 euro.
22:00etatik 06:00etara, *gaztetxean.*

IGANDEA 14

IRURTZUN Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleak taldearen mendi irteera: Goiuriko ur jauzia – Izarra.
07:00etan, *Iratxon.*

ALTSASU Txirindularitza irteera.

Barranka Txirindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Balankaleku eta Lareora, 54 kilometroko ibilbidea.
08:30ean, *Zumalakarregi plazan.*

ALTSASU Elkartasun azoka.

Bigarren eskuko elkartasun azoka Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak, Altsasu BHIK eta Sakana Harrera Haranak antolatuta. Txoko desberdinak egonen dira: jolasak, hausnarketa, institutua, Sakana Harrera Harana eta pintxoak.
10:00etatik 14:00etara, *lortia zabalgunean (eguraldi txarrarekin Burunda pilotalekuan).*



kattuka
haur eskola

Aurrematrikula
Apirilak 10etik 24ra

Matrikula
Ekainak 6tik 12ra

Kattukan (9:15 - 15:15) edo On line

Kattuka Haur Eskola (Arbizu-Lakuntza)
info@kattuka.com
www.kattuka.com
948 567 009
Uhalde kalea z/g, 31839 Arbizu

ALTSASU Orientazio proba.

Nafarroako Kirol Elkarteak eta Nafarroako Mendi Federazioak antolatutako bigarren orientazio proba herrikoa. Kategoriak: Open Horia (2,8 km, 35 metro desnibela, hamaika kontrol), Open Laranja (4,1 km, 80 metro desnibela, hamabi kontrol), Open Gorria (4,8 km, 13 metro desnibela, hamasei kontrol) eta Open Beltza (5,2 km, 185 metro desnibela, hemezortzi kontrol). Taldea edo bakarka. Parte hartzaileak bi minuturo aterako dira.

Dantzalekun.

10:00 Kontrol guneko irekiera.

10:30 Open Beltza kategoriaren irteerak.

11:30 Beste kategorietako irteerak.

12:30 Azkeneko parte hartzaileen irteerak.

14:00 Helmugaren itxiera.

ARBIZU Palestinarekin elkartasunezko ekimena.

Arbizu Palestinarekin genozidio gelditu! ekimena.

12:00 Ipuinak, plazan.

12:30 Giza katea plazatik San Juan ermitara.

13:30 Ekitaldia, plazan.

ALTSASU Ekitaldia.

II. Errepublikaren eguneko ekitaldia eta luntxa, errepublikarren eskutik.

12:00etan, Zubeztia elkartearen aurreko eskulturaren.

ALTSASU Antzerkia.

Arrain bat bezala familiarteko antzezlanaren emanaldia, Producciones Maestras konpainiaren eskutik: Martziali beti gustatu izan zaio arrantza egitea, eta orduak ematea bere txalupa txikian lasaitasunaz gozaten. Azkenaldian, badirudi arrainek ihes egiten diotela eta apur bat despitatuta dabil. Kalean ez da seguru sentitzen, ez daki gauzak non uzten dituen, ezta joan den edo etorri den ere. Sendaberri paisaia eszeniko berriak programaren barruan. Sarrerak: 3 euro.

17:00etan, *Iortia kultur gunean.*

ARBIZU Filmaren emanaldia eta solasaldia.

Bizkarsoro filmaren emanaldia eta lantaldeko kide batekin solasaldia: Bizkarsoro herria ez da existitzen eta, era berean, Euskal Herriko edozein herri izan daiteke. Euskaraz bizitzeagatik jazarriak izaten diren euskaldun guztiak dira bizkarsorotarrak.

18:00etan, *udal areto nagusian.*

IRURTZUN Liburu aurkezpena

Arakilgo hiztegiaren aurkezpena, Aitor Arana eta Koldo Colomorenkin.

19:00etan, *udaletxean.*

ASTELEHENA 15**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, *udaletxearen aurrean.*

ZINEMA**ALTSASU**

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

La extorsión gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

Igandea 14: 19:30
Astelehena 15: 19:00

Matsalem gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

Osteguna 18: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Mi camino interior zineforum filmaren emanaldia.

Igandea 14: 19:30

ASTEARTEA 16**LAKUNTZA Hitzaldia.**

Conecta con tus hijos en tiempos de internet hitzaldia. Lakuntzako Eskolako Guraso Elkarteak eta Lakuntzako Herri Eskolak antolatuta.

17:30ean, *herri eskolan.*

ZIORDIA Tailerra.

Aurpegiko zainketak tailerra Ana Imazekin: modu erraz batean, aurpegia zaintzeko tratamendu osoa egiten ikasteko tailerra. Izena ematea: liburutegian, 10 euro.

18:00etan, *liburutegian.*

ASTEAZKENA 17**OLATZAGUTIA Hitzaldia.**

Online teknologia osasuntsuak familian hitzaldia: prebentzio neurriak,



UTZITAKOIA

IRURTZUN Leitzako Amazabal institutuko DBH 4. mailako ikasleen arkatzezko marrazkien erakusketa.

Apirilaren 28ra arte. *Pikuxarren.*



ARTXIBOIA

erabilera ohitura eta tresnak aztertu eta ezagutu, seme-alabek Interneta, sare sozialak eta konektaturiko beste zerbitzu teknologikoak erabiltzean aurki ditzaketen arrisku egoerei aurre egiten laguntzeko. Olaztiko Herri Eskolak eta Altsasu, Olazti eta Ziordiko Oinarriko Gizarte Zerbitzuak elkarlanean antolatuta.

16:00etatik 17:00etara, *herri eskolan.*

IRURTZUN Hitzaldia.

Ezkaba espetxearen historiaren inguruko hitzaldia. Sendaberri paisaia eszeniko berriak programaren barruan, Ezkaba antzezlanaren harira. Gaztelaniaz.

18:00etan, *kultur etxean.*

ALTSASU Hitzaldia.

ALTSASU Uholdeak Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren programaren erakusketa: bat bitan.

Apirilaren 28ra arte. *Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.*



ERRAN.EUS

ZIORDIA Collage Sararen lanen erakusketa.

Apirilaren 15etik 30ra. *Liburutegian.*

Politika feministak: Zer dira? Nola aurrera eraman? Zaloa Basabe Gutierrez Iruñeko Udaleko Berdintasun zinegotziaren hitzaldia, EHBilduk antolatuta.

18:30ean, *Iortia kultur gunean.*

ETXARRI ARANATZ Liburu aurkezpena.

Juan Luis Larraza Lakuntzaren *Bernoa* eleberraren aurkezpena.

19:00etan, *kultur etxean.*

OSTIRALA 19**ALTSASU Gazte agenda.**

Muralismo parte hartzailea tailerra Ottstuff-ekin.

17:30etik 20:30era, *Intxostiapunta gazte gunean.*

ALTSASU Kontzertua.

Pr0t0c0lectiv0ren kontzertua, *Uholdeak* Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren programaren barruan.

18:00etan, *Iortia kultur gunean.*

IRURTZUN Antzerkia

Ezkaba antzezlanaren emanaldia, Iluna Producciones konpainiaren eskutik: Ezkabako espetxeko bizitza nolakoa izan zen, eta bertako presoek, haien familien eta elkartasun sareek bizitza eta ihesaldia eszenaratzen ditu.

Sendaberri paisaia eszeniko berriak programaren barruan. Gaztelaniaz. Sarrerak: 6 euro.

19:00etan, *kultur etxean.*

ZORION AGURRAK

Eneko Galarza
Zorionak kaskatxuri!!, sarri 3 urte beteko ttuzu ta ia mutil koxkor bat einda zaude. Segi hortan, zuu alaitasunien bizitzen ta izen zoriontsu zuu egunien. Zu fameliye.



June Castro
Zorionak!!! 7 urte bete ttuzu ta udaberriko loriek beño politto zaude. Aittu diau ikastolako lanak oso txintxu etten ttuzula; ba segi hola!! izen zoriontsu zuu alaitasunakin. Zu famelikuek.



Inar Azanza
Zorionak Inar! Segi orain arte bezain zoriontsu!



Ez ahartu
zorion
agurra!

zorion@guaixe.eus
948 564 275

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA

Karmentxu
Etxeberria
Escobar

Karmentxu, zure oroitzapenak ez ditugu inoiz ahaztuko eta gure bihotzetan eramango zaitugu beti!

Etxeberria familia

Iturmendi-Bakaiku, 2024ko Martxoaren 31

ESKELA

Teo
Peral
de Juana

Beti egongo zara gure bihotzetan

Zure familia

Altsasu

ESKELA

Jesus Mari
Garatea
Elzaburu

2024 ko apirilaren 6an zendu zen

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik

Txapel-azpi elkarte

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGA

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Intere-satuek deitu 669 156 117 telefonora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Mank-ek ingurumen hezitzaile lan poltsa osatzeko deialdia zabaldu du: Hautapoben bidez osatuko da Hondakin zerbitzuan aritzeko lan poltsa. Betebeharrak: C1 mailako euskara titulua, B motako gidabaimena eta Enplegu bulegoan izena emanda egotea, enplegu eskatzaile bezala edo enplegua hobetzeko. Apirilaren 24eko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar da eskabidea. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus webgunean.

Nasuvinsak Energia trantsizioaren arloan lan eginen duen teknikari bila Sakanan: Autokontsumo proiektuak eta energia komunitateak sustatzen dituztenei laguntza eta aholkuak emanen dizkie, ibili beharreko bide hori errazagoa izan dadin eta horiek eratzten eta implementatzen jarrai dezaten. Energia subiro-tasuna indartzeko toki erakundeei, herritarrei eta enpresei laguntzea, alegia. Deialdiari buruzko informazio gehiago viken.es webgunean.

LEHIAKETA

'Erdialde' euskarazko idazlan laburren 17.

lehiaketa: 6 urtetik gorako haurrei zuzendua, maila ezberdinetan banatuta egongo da lehiaketa, maila bakoitzeko 3 sari. Lanak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 30an amaitzen da Miranda de Argako Tudelana kaleko 3.zbkiko egoitzan edo erdialde.euskararenlagunak@gmail.com posta elektronikora idatziz. Oinarriak <http://euskararenlagunak.wordpress.com> antolatzaileen helbidean.

IKASTAROK

Euskal dantzak tailerra Olaztin: Euskal dantzak ikasteko gogoa duen edozein gazte eta helduei zuzendua. Ostiralero 17:00etatik 18:30era Sutegi kiroldegian, apirilaren 12tik ekainaren 28ra. Dohainik!

Altsasun gazteendako 'Muralismo parte-hartzailea' tailerrean izena emateko epea zabalik: Tailerra apirilaren 19, 20 eta 21ean egingo da, 17:30tik 20:30era Inbostiapunta Gaztegunean. Izena emateko deitu 948 564 785 telefonora edo gazteria@altsasu.net helbidera idatzi.

OHARRAK

Bakaikuko Udaberriko festetako bazkarirako ticketak salgai: Herriko dendan, Koxkon eta elkartean daude txartelak salgai apirilaren 22ra arte. Helduek 20 euro eta haurrek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Arakildik Lizarrara irteera kulturala antolatu

da: Maiatzaren 4ean izanen da, jardueran parte hartzeko Arakildo udalburuaren izena eman behar da apirilaren 29a baino lehen, 25 euro ordainduz.

Odol emateak Altsasun: Apirilaren 17an eta 18an 17:00etatik 21:00etara eta 19an 9:30tik 13:15era Gure Etxea eraikinean.

Olaztin egur lotea jasotzeko izen ematea zabalik: Herri basotik egur lotea atera nahi dutenek, aurretik izena eman beharko dute udalburuaren, bulego ordutegian, 09:00etatik 14:00etara, izena emateko epea apirilaren 17an despidituko da. Egur loteak 25 euro balio ditu, horietatik 10 euro izena emateko unean pagatu beharko dira.

Sakanako Mintzakide taldeak: Altsasun astelehenera 10:00etan liburutegian, ostegunetan 20:00etan Lezea tabernan eta ostiraletan 9:00etan Kaixo tabernan, Ziordian ostiraletan, 17:00etan liburutegian, Etxarri Aranatzan ostiraletan 19:00etan Xapatero tabernan, Arbizun asteartean 16:30ean kiroldegiko tabernan, Lakuntzan asteazkenetan 18:15ean jubilatuta elkartean eta Irurtzunen astelehenera 18:30ean Iratxo tabernan, ostegunetan 09:00etan Pikuxarren eta ostiraletan 19:00etan Pikuxarren ere. Parte hartzeko deitu 600 482 024 telefonora.

iragarki.guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Ahmad Muhammad Traore Mbaye**, martxoaren 11n Altsasun.
- **Amair Alegria Larrea**, martxoaren 22an Lakuntzan.
- **Alessandro Adrey Gonzalez Viloria**, martxoaren 28an Altsasun.

EZKONTZAK

- **Iban Mendinueta Gabirondo eta Lide Agirre Lopez**, apirilaren 8an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Juana Pineda Mateos**, martxoaren 20an Altsasun.
- **Maxima Velasco Fernandez**, martxoaren 22an Etxarri Aranatzan.
- **Carmen Echeverria Escobar**, martxoaren 31n Iturmendin.
- **Carlos Garziandia Etxeberria**, apirilaren 3an Lakuntzan.
- **Dominica Campana Iglesias**, apirilaren 3an Altsasun.
- **Victorio Juanez Juanez**, apirilaren 3an Altsasun.
- **Teo Peral de Juana**, apirilaren 7an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus


► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.


► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 12




Larunbata, 13



Igandea, 14



Astelehena, 15



IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

Buruz burukoak ikusmin handia piztu du

PILOTA Buruz Buruko final laurdenetako ligaxkako lehendabiziko jardunaldian, Zabaletak Dario izango du aurkari, eta Ezkurdiak Artola. Zabaletak itxura ona eman nahi du txapelketan, eta Zabaletak falta zaion txapelagatik borrokatu nahi du

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Binakako final ikusgarriko oihartzunak itzali gabe zeudela abiatu zen Buruz Buruko Txapelketa. Joan zen asteburuan final zortzirenak jokatu ziren eta Peña II.a, Urrutikoetxea, Jaka eta Joanes Bakaikoa etxarriarra geratu ziren txapelketatik kanpo. Lasok 9 tantotan utzi zuen Bakaikoa, eta Binakako txapeldun Zabaletak 22-15 irabazi zion Jakari.

Zabaleta eta Ezkurdia

Zabaleta da Buruz Burukoa jokatzen ari den atzelari bakarra. Final laurdenetako ligaxkako A multzoan dago, Dario, Altuna eta Laso pilotariek. B multzoa ere indartsua da: Elordi, Zabala, Ezkurdia eta Artola. Asteburuan lehen jardunaldia dago jokoan.

Zabaletak Darioren kontra jokatuko du larunbatean Labriten. Binakako txapela jantzi berri, une bikainean dago etxarrendarra. Eskuko minarengatik bi hilabete jokatu gabe egon da



Ezkurdiari Buruz Buruko txapela falta zaio eta hura lortu nahi du. ASPEPELOTA.EUS

Dario, eta itzulerarekin gogotsu dago. Beraz, Zabaletak ez du lan erraza izango, baina etxarrendarra arerio arriskutsua da. Buruz buruko txapelduna izandako Jaka irabaztetik dator. Sakearekin min handia egin zuen,

eta pilota kolpe onarekin dago. Partidaren ekimena hartzen badu, arerio latza izango da Dariorendako. Sakea izango da bere gakoa, eta Dario errebotean mantendu nahi izango du, bere jo luzearekin mina egiteko.

Bestalde, Ezkurdiak Artola izango du aurkari igandean Astelenan. Buruz Buruko txapela da Ezkurdiak falta duen bakarra. 2022an Lasoren kontrako finala galdu zuen, eta joan zen urtean finalerdietan galdu zuen, Altunaren kontra. Arbizuarrak mimos prestatu du Buruz Buruko, txapel horren borrokan egon nahi duelako. Artolaren kontra lehen aldiz lehiatuko da Buruz Burukoan. "Ilusioz nago. Entrenamenduetan ongi ikusi dut neure burua eta sentsazioak onak dira. Baina konfiantzaz beteta dagoen aurkaria dut, eta partida gogorra izango da. Artolak ongi sakatzen du, eta errestoaren ondoko bigarren pilotakada ezinbestekoa da Buruz Burukoan. Hor Iñakik min handia egiten du eskuinaren. Beraz, lehia gogorra izango da" azaldu du Ezkurdiak.

Arbizu berria, jaioterrian

Aaron Arbizuk Garfe talde berriarekin debutatuko du herrian, Etxarri Aranatzen. Gaur, ostirala, 22:00etan, Arbizuk Retegi Bi izango du bidaide, Victorren eta Bergeraren kontra. Aurretik, Murgiondok eta Cuairanek Nazabal eta Lazkoz izanen dituzte aurkari.

Zabaleta nagusi final erraldoian

PILOTA Binakako final zoragarria oparitu zuten Etxeberria-Zabaletak eta Altuna-Martijak. Final itzela, emozioz betetakoa. 20-22 irabazita, Zabaletak Binakako bere bosgarren txapela lortu zuen, bostak pilotari ezberdinekin, historian lehendabizikoz. Martijak Zabaletaren erauntsia eutsi zuen, erremontada eskura izan zuen, baina Zabaletak jantzi zuen txapela, merezitakoa.



ASPEPELOTA.EUS

FUTBOLA

EMAKUME PREFERENTEA

4. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Gares 5-2

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 2. FASEA

1 Idoia 8
2 Altsasu 7

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRIK 13, LARUNBATA

17:45 Altsasu - Idoia (Dantzaleku)

Altsasu vs Idoia, lidergoa jokoan

Bigarren fasean, lider jartzeko borroka itzela aurreikusten da Dantzalekun.

GIZON PREFERENTEA

26. JARDUNALDIKO EMAITZA
Altsasu - Valle de Egües B 1-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades B 51
12 Altsasu 35

HURRENGO JARDUNALDIA

APIRIK 14, IGANDEA

17:00 Aibarés - Altsasu (San Lorenzo)

Altsasuk Aibarés aurkari

Altsasuk ezin izan zuen Valle de Egüesen kontra etxean jokatutako partidaren punturik lortu. Igandean Oibarrera doa, arerio zuzena den Aibarésen kontra puntuatzeko asmoekin.

Zaldua, topera

Elomendiko Txapelketan, Zalduak 13-2 irabazi zion Basatiri, partida ikusgarrian. Arakildarrek bosgarren jarraitzen dute eta asteburuan Apolo dute aurkari.

GIZON ERREGIONALA

24. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Mutilbera C 2-0

Berrioizar - Lagun Artea 1-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Mutilbera C 52
2 Etxarri Aranatz 51
8 Lagun Artea 36

APIRIK 13, LARUNBATA

11:00 Lagun Artea - Etxarri (Zelai Berri)

Lagun vs Etxarri, derbi estua

Etxarri Mutilbera C liderra irabazi zuen eta puntu batera du lider jartzea. Lagun Arteak, aldiz, puntu bat ekarri zuen Berrioizartik. Larunbat goizean jokatuko da bi talde sakandarren derbia, Lakuntzan, jokoan asko dela. Lidergoa lortzeko bidean irabaztera behartuta dago Etxarri, eta igogera postuetara heldu nahi badu irabazi beharrean dago Lagun Artea. Aspaldiko derbirik lehiatuaren aurrean gaude.

2024ko La Peluso martxa aurkeztu dute

TXIRRINDULARITZA Maiatzaren 11n bidea hartuko duen Irurtzongo martxa zikloturistak 1985 urteko Reynolds taldeko txirrindulariak eta Imanol Erbiti omenduko ditu, eta izena ematearen %10 Aspace elkartera bideratuko du. Izena ematea zabalik dago

Apirilaren 8an aurkeztu zuten, Iruñeko Banco Santanderren, La Pelusoren laugarren edizioa. La Peluso Cycling Taldeak antolatzen duen txirrindularitza martxa ez lehiakorrek maiatzaren 11n 8:30ean hartuko du irteera Irurtzongo plazatik.

Aurten 1985 urteko Reynolds taldeko txirrindulariak omenduko ditu La Pelusok, taldearen seigarren urteko txirrindulariak hain zuzen ere. Aurrerago jakinago da zeintzuk parte hartuko duten omenaldian. Horretaz gain, joan zen urtean erretiroa hartu zuen Movistar Team taldeko Imanol Erbiti Ollo txirrindularia omenduko dute. Hiriberrikoak



Antolatzaileak, babesleak, omenduak, ASpacekoak eta beste, aurkezpenean. LAPELUSO

19 urte egin zituen profesional, guztiak eskuadra berean, eta zenbaki ikusgarriak utzi zituen: Frantziako hamahiru Tour, Espainiako hamabost Vuelta, Giro bat, 2016ko Rioko Olinpiar Jokoak, Munduko zortzi txapelketa eta Europako hiru. Hiru garaipen lortu zituen: 2008an eta 2010ean Vueltan lortutakoak, eta Errioxako Itzulian lortutakoa. Imanol Erbiti La Pelusoren aurkezpenean egon zen, "oso eskertuta", eta gehien baloratzen duena "zaletuen kariñoa eta babesa" dela nabarmendu zuen.

Izena ematea, zabalik

Santi Moreno antolatzaileak adierazi zuenez, joan zen urteetako izena emate kopuru berbera espero da, 1.500 txirrindulari ingurukoa. Izena ematea zabalik dago, apirilaren 26ra arte, La Peluso webgunean. Joan zen urtean eguraldi oso petrala egin zuen, eta izena emanda zeuden ia 1.400 txirrindularietatik 687k osatu zuten martxa.

Bi ibilbide

La Pelusok bi ibilbide izango ditu, joan zen urteko berberak.

Proba luzea (138 km) gogorra eta gorabeheratsua da: zortzi portu dira -Goñi, Ultzurrun, Madotz-Zuarrarrate, Uitz, Usategieta, Saldias, Beruete eta Madotz-Zuarrarrate, azkenekoz-, eta Goñi, Irurtzun, Lekunberri, Uitz, Leitza, Orokieta, Lekunberri eta Irurtzun biltzen ditu. Txirrindularien esanetan, ibilbide ikusgarria. Ibilbide motzak 87 km ditu, eta lau portu: Goñi, Ultzurrun, Madotz-Zuarrarrate eta Zia. Hornidura guneak Irurtzunen, Basakabi gainean, Beruete gainean eta Irurtzongo helmugan (paella jatea) egongo dira, baita arazo mekanikoak konpontzeko guneak ere. Hurrengo urtean ibilbidea aldatzeko asmoa dute.

ASPACE

La Pelusok fundazio edo elkarte bat laguntzen du urtero. Aurten garun paralisia duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duen ASpace elkarteari bideratuko zaio izena ematean jasotzen den %10a. Aurkezpenean ASpace elkarteko ordezkari bat egon zen, baita Iker Flores eta hainbat babesle.



Ekhi Congil, Altsasuko Duatloian.

DUATLOIA Ekhi Congil, Eguesibarko Duatloian hirugarren

Larunbatean 23. Eguesibarko Duatloia jokatu zen (5,2k, korrika-24 km bizikletan-2,5 km korrika), taldeka, binaka eta banaka. Banakako proba herrikoia 21 duatletek osatu zuten eta Mikel Otaegik irabazi zuen nagusitasun osoz (1:07:09), Ekaitz Otegi ia bi minutu aterata (1:08:56). Sakana Triatloi Taldeko Ekhi Congilek osatu zuen podiuma (1:10:14).

Valentziako podiumera igo ziren Beratzako sakandarrak

TXIRRINDULARITZA Ane Berastegik podiuma egin zuen bi lasterketan eta Beratxa talde onena izan zen

Asteburu bikaina izan dute Ecologicos Navarra-Beratxa Tafallako taldeko kide diren Ane Berastegi eta Siets Goikoetxea sakandarrek. Challenge Comunitat Valencianarako baliagarriak ziren bi lasterketan parte hartu zuten, eta podiumera igo ziren. Larunbatean jokaturako Emakumezkoen I. Naquera Udala Trofeo gogorra Leyre Almenak (Rio Miera) irabazi zuen. Ane Berastegi hirugarren izan zen, eta Siets Goikoetxea hamahirugarren. Igandean Estivellako Camp de Morvedre Klasikoan hartu zuten parte, eta esprintean erabakitako lasterketan Vera Valero (Universitat Politècnica Valencia) gailendu zen, Ane Berastegi bigarrenaren aurretik. Siets Goikoetxea hamahirugarren sartu zen. Ecologicos Navarra Beratxa podiumera igo zen, talde onena izan zelako.



Beratxa, Morvedren talde onena. BERATXA

Gomez, Roubaixen giltzarri

Paris-Roubaix juniorrean (111 km, galtzadarrizko 17 eremu), Espainiako selekzioarekin lehiatu zen Iker Gomez. Hector Alvarez liderrari gorpila zulatu, eta altsasuarrek aurreko talderaino eraman zuen. Lan ikusgarria.

2024 APIRILA IRURTZUN IRABO ELKARTEA

Sakanako Ibilaldia

27

IBILBIDE LUZZEA: IRTEERA: 06:00
54 Km. - 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 08:00
25,5 Km. - 1.440 mko desnibela

IBILALDI TXIKIA: IRTEERA: 09:30
14 km. - 736 mko desnibela

Izena-emateak apirilaren Tetik 24 arte web orian.

ADI! Ezingo da izen-ematea egunean bertan egin

www.zirkuitua.com · www.iratxoelkarte.com iraxemendi@gmail.com



Sakana Patin taldea, ezkerrean Oscar Zamarron entrenatzailea, Nafarroako Abiadura Txapelketako jardunear, Olaztin. SAKANA PATIN

Sakana Patin, denboraldiarekin gustura

IRRISTAKETA Nafarroako Txapelketetan lehiatzeaz gain, Euskal Ligan eta Estatuko 15 urtez azpiko Liga Nazionalean lehiatzen hasi dira irristalari sakandarrak. Taldera batzeko gonbidapena egin diete gaztetxoei, irristaketarekin asko disfrutatzen dutelako

Maidet Betelu Ganboa ALTSASU Martxoaren 23an Nafarroako Abiadura Irriestaketa Indoor Txapelketako laugarren jardunaldia hartu zuen Olaztik. Bertan lehiatu ziren Oscar Zamarron Carravilla entrenatzailearen esanetara trebatzen diren Sakana Patin taldeko neska-mutilak. Egun, 20 kide ditu Sakana Patinek, azken urteetako kopurua-

ren antzera. "Sakanako irriestaketa eskoletan, Altsasun, Olaztin, Etxarrin... haur pila bat trebatzen dira irriestaketan, baina gero lehiaketako Sakana Patin taldera saltoa ematea kosta egiten zaie. Haur batzuk ez dute lehiaketaren sena hori, guraso batzuei irriestaketa arriskutsua iruditzen zaie..." hausnartzen du Zamarronek. Sakana

Patin entrenatzeaz gain, Altsasuko irriestaketa eskolako arduradunak altsasuarra, eta bertan 50 irriestalari trebatzen dira. "Irriestetzen ikasten diegu, eta ongi erortzen, mina har ez dezaten. Nahiz eta irriestaketan abiadura hartu, jendeak uste baino kontrol askoz ere handiagoa dute irriestalariak. Erorikoak ez dira ohikoak".

Helduen irriestaketa talde baten erreferentzia faltak ere eragina izan dezakeela uste du Zamarronek. "Sakanan ez dago irriestaketa pista estalirik eta 15 urtetik gora dituzten irriestalariak Iruñeko taldeetara jotzen dute, edo irriestaketa utzi. Baina, nolahi ere, Sakana Patin taldean gustura gaude eta Nafarroako Kirol Jokoetako (NKJ) txapelketetz gain, lehiaketa berrietan lehiatzen hasi gara".

Nafarroa, Euskal Liga eta beste Nafarroan irriestaketa maila oso handia denez, geroz eta zailagoa da bertan emaitza onak lortzea. Are gehiago Sakanakoa bezalako klub txiki batendako. "Asteburuan, apirilaren 6an eta 7an, Nafarroako Zirkuitu Txapelketan lehiatu ginen, Antoniuttin, baina ez genuen dominarik lortu eta horregatik Espainiako Txapelketetan lehiatzen kanpo geratu gara. Estatu mailan lehen Nafarroa zen izarra, baina irriestaketa modan jarri da, eta geroz eta komunitate gehiago indartu dira, Katalunia, Madril edo Asturias, esaterako. Duela urte batzuk kategoriatan bakoitzetik Nafarroatik zazpi-zortzi irriestalari onenak sailkatzen ziren Espainiarako, eta hor aukera bagenuen, baina gaur egun gehiezin hiru hautatzen dira, eta Espainiako Txapelketa oso garesti dago".

Bestelako probetara zabaldu dira sakandarrak; iaz Euskal Irriestaketa Ligan lehiatzen hasi ziren. "Euskadiko maila Nafarroakoa baino baxuagoa da, eta horregatik txapelketa horretan maila onean ari dira gure irriestalariak. Joan zen urtean zenbait kategoriatan urrea lortu genuen, eta aurten ere oso ongi ari dira, aukerekin".

Horretaz gain, estatu mailako 15 urtez azpiko Liga Nazionalean lehiatzen hasi dira. "Txapelketaren berri izan genuenean, primeran zegokigula jabetu ginen. Kimuen eta haurren mailako (2010 eta 2012 urteetan jaiotakoak) sei neska eskatzen zituzten, guretako egokia. Txapelketa taldeka jokatzeko da; irriestalariak taldearendako baten dituzte puntuak. Hiru mailatan jokatzeko da, eta berriak ginez, hirugarren mailan hasi ginen. Estatu mailan lehen talde lehiatzen ari gara, eta Gijonen martxoaren 9an eta 10ean jokatutako jardunaldi bikoitzean bosgarrenak sailkatu ginen. Guretako hori asko da, gainontzeko taldeak estatuko klub askoz ere handiagoak direlako". Apirilaren 20an eta 21ean Liga Nazionaleko hirugarren eta laugarren jardunaldiak jokatuko dira Argandan (Madril), eta aurreikuspenak onak dira. Lehen bi taldeak igoko dira bigarren mailara, "baina guk zaila dugu, talde indartsuak daudelako. Bosgarren postuari eusten badiegu, guretako hori izugarria litzateke". Neskendako "sekulako esperientzia" da. "Asteburu pasa, Iruñeko Lagunak klubekoekin hotelean kontzentratuta... Txapelketak bizia eman die, izugarri disfrutatzen dute".

Sakanako Patin taldeak "ateak zabal-zabalik" ditu. "Gaztetxo guztiak dira ongi-erriak. Anima daitezela, mutilak bereziki, oso gutxi baititugu taldean".

"LIGA NAZIONALAK BIZIA EMAN DIE; OSO GUSTURA ARI DIRA, ESPERIENTZIA HANDIA" OSCAR ZAMARRON

Palacios eta Gurmindo, Opakuan gora txukun

AUTOMOBILISMOA Sakana Motorsporteko pilotuek mendi igoera denboraldiari hasiera eman diote

Agurain eskuderiak antolatuta, aurreko larunbatean, apirilak 6, XVI. Opakuako Igoera jokatzen Agurainen. Guztira 40 pilotuk lortu zuten mendi igoera osatzea. Azkarrena, eta monopazen kategoriatan lehena, Aitor

Manso pilotua izan zen (BRC B49). Mansok bigarren igoeran lortu zuen denborarik onena egitea (2:28.218). Iker Palacios lakuntzarra (BRC B52) monopazen sailkapenean laugarren sailkatu zen, baina bere mailan,

bederatzigarren klasean, hirugarren izan zen (2:39.358). Palaciosek ere bigarren igoeran egin zuen bere denborarik onena.

Scratchean edo sailkapen orokorrean bosgarren sailkatu zen Palacios, turismoen sailkapenean irabazle Igor Urienek (Citroen AX E2) denbora hobea egin zuelako (2:33.443). Turismoen sailkapenean Ander Gurmindo (Renault Clio Sport) 26. sailkatu zen (3:09:750), lan ona eginda. Bere mailan, zortzigarren klasean, bigarren izan zen.



Iker Palacios, Opakuan gora. AITOR DEL OLMO



Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko NKJ-etako lehen fasean parte hartu zuen Iskizako zazpikotea. ISKIZA-SAKANA

Iskiza: banaka, taldeka bezain fin

GIMNASIA ERRITMIKOA Banakako modalitatean mustu diren Iskizako hiru gimnasta Espainiako Banakako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan lehiatu daude, Castellonen. Altsasuk Nafarroako Banakako Txapelketako bigarren fasea hartuko du apirilaren 20an

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Martxoaren 23an Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko NKJ-etako lehen fasea jokatu zen Barañainen. Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko zazpi gimnastak parte hartu zuten bertan. Laugarren mailan Enara Perez, Haizea Perez, Ainhoa Marijuan eta Uxue Zubelzu lehiatu ziren, pilota aparailua edo elementua hartuta. Eta bigarren mailan Ane Iturrioz, Naroa Diaz eta Nagore Erdozia gimnastek hartu zuten parte, mazoekin. Iskiza Sakanako koordinatzaile Olaia Agirre orokorrean "oso pozik" dago gimnastek egindako lanarekin. "Oro har oso lan ona egin zuten guztiek, eta emaitza politak lortu genituen. Esaterako, Enara Perez kadetea (2010 maila) lehen postuan sailkatu zen, eta jubeniletan Ane Iturrioz (2007-2008 maila) txapeladuna

izan zen eta Nagore Erdozia (2005-2006 maila) hirugarrena".

Espainiako Banakakoan Nafarroako Txapelketan egindako lan bikainari esker, bigarren mailan lehiatu ziren Ane Iturriozek, Naroa Diazek eta Nagore Erdoziak apirilaren 14ra edo igandera bitartean Castellonen jokatzeko ari den Banakako Oinarrizko Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketarako plaza edo txartela lortu zuten. Atzo, osteguna, hartu zuten Castellonerako bidea, eta bertan daude euren lana tapizean era-

"TALDEKA ARITZETIK BANAKA LEHIATZERA ALDAKETA HANDIA DA; ONGI ARI DIRA"
OLAIA AGIRRE

kusteko prest. Nafarroako Txapelketan aurkeztu zuten lan ariketa berbera eskainiko dute, maza aparailuarekin egindako lana. Abenduan hasi ziren koreografia prestatzen.

Taldetik banakakorako saltoa Orain arte taldeka lehiatu dira Espainiako Banakako Txapelketan parte hartuko duten gimnastak. 2023an Iskiza Gimnasia Erritmikoko oinarrizko jubentia taldea Nafarroa Arenan jokatu-tako Espainiako Taldekako Txapelketan estatuko 147 talderen artean 29. sailkatu zen, eta Nafarroako Bigarren Mailako txapeladuna izan zen. Bost gimnastak osatzen zuten taldea, baina horietako bik taldea utzi zuten. "Taldea lehiatzeko gutxienez bost gimnasta behar dira, eta bik utzi zuten, jubeniletan geratu ziren beste hiru gimnas-

ta hauekin banakako txapelketetara salto egitea erabaki genuen" dio Agirrek. Taldeka aritzetik banaka aritzera, alde badago. "Aldaketa handia da, urte asko ibili direlako taldeka lanean, eta emaitza onekin, gainera. Bakarka aritzera pasatzea kostatzen da, badu bere zailtasuna. Mentalki gogorragoa da. Baina Nafarroako Banakako Txapelketako lehen fasean emaitza politak izan dituzte, eta pozik gaude".

Ikastera

Iskizakoak "espektatibarik gabe" joan dira Castellonera. "Banakakoan maila oso handia da, potentia. Espainiako Txapelketan lehiatzen ari diren gimnastak askok urte asko daramatzate bakarrik lanean, eta abantaila hori dute. Gure gimnastendako bakarrik lehiatzen diren lehen urtea da. Hortaz, espektatibarik gabe goaz. Gure lana defendatu nahi dugu, puntuazioa eta bestelakoak ez zaizkigu axola. Guretako esperientzia berria da, guztiz. Beti bezala, ikastera goaz" argi du Olaia Agirre irakasle eta Iskizako koordinatzaileak. Baina agian sorpresa eman dezakete. Zergatik ez? "Dena ongi ateratzea, hori litzateke guretako aldaba jotzea. Akats larriak ez egitea eta ariketa ongi bukatzea. Horrekin, pozik zorutzen geundeko. Emaitzei baino, sentazioei begira goaz, lana ongi egiteari begira. Kategoria bakoitzean 150 gimnasta inguru daude, hau beste mundu bat da. Gimnastak tapizetik pozik ateratzea. Hori pozik baino gehiago egotea litzateke guretako".

Nafarroako 2. fasea, Altsasun Castellonetik bueltan, Iskizako gimnastak ez dira geldituko. Apirilaren 20an, larunbata, Banakako Nafarroako Gimnasia Erritmikoko NKJ-etako bigarren fasea hartuko du Altsasuk. Nafarroako 21 klubetik gerturatutako 136 gimnastak hartuko dute parte, bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren mailan. Martxoaren 23an Barañainen lehiatu ziren gimnasta guztiak

"APIRILAREN 20AN NAFARROAKO 2. FASEA HARTUKO DU ALTSASUK. GOGOTSU GAUDE"
OLAIA AGIRRE

lehiatuko dira, txapelketaren behin betiko sailkapena lehen fasean eta bigarren fasean egindako lana batuz egiten baita. Zelandi kiroldegian jokatu-tako da, 9:00etatik hasita 14:00ak arte, eta sarrera irekia da. Gimnasia erritmikoaz gozatzeko, aukera aparta. "2019an hartu genuen azken aldiz Nafarroako Txapelketa, eta, horregatik, gogo handiz hartu dugu aurtengoa antolatze-ko erronka. Aste pare bat daramagu guztia prestatzen; ongi ateratzea nahi dugu, beste urte batez ere txapelketa Altsasura bueltatzeko, eta ez bospasei urtean behin. Gogotsu gaude" nabarmendu du.

Lehen fasean lehiatu ziren Iskizako zazpi gimnastek gain Nerea Palomino ere lehiatuko da, laugarren mailan, mazoekin. Lehen fasean ezin izan zuen aritu, baina bigarren fasean parte hartzea animatu da. Helburua ikasitako guztia ongi erakustea da, lehen fasean egindako lanari eustea, eta, ahal bada, hobetzea. Etxean egonda, gainera, motibazioa handiagoa da.

Liga eta beste

Iskizakoek praktikak bete lan dituzte hemendik aurrera. "Martxoaren arte lasai ibiltzen gara, ariketak eta koreografiak prestatzen, baina martxotik ekainera bitartean ia ez gara gelditzen". Espainiako Banakako Txapelketaren eta Nafarroako Banakako bigarren fasearen ondoren, Iskizako Liga eta taldekako txapelketen txanda etorriko da. "Apirilaren 28an, igandea, Altsasun Iskizako Liga prestatzen dugu. Iskizako gimnasta guztiek parte hartzen dute, txapelketa taldekoak eta eskolakoak. Izan ere, berehala NKJ-etako Nafarroako Taldekako Txapelketak hasiko dira, eta landutakoa erakusteko aprobetxatzen dute gure gimnastek. Erakustaldi txikia da, eta beste klub batzuetako gimnastak gonbidatzen ditugu. Datorrenari heltzeko nolabaiteko irteteko pistola-tiroa da".

Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko taldean 86 gimnasta inguru daude aurten. Aurten bost txapelketa talde prestatu dituzte, 25 gimnasta guztira. Haiei Espainiako Banaketan lehiatzen ari diren hiru gimnastak batu behar zaizkie, Altsasuko eskolako 33 gimnastak eta Arbizuko eskolako 25ak. Talde ederra.

Itzuli sakandarra

Sakanak presentzia handia izan zuen Altsasuko eta Etxarri Aranazko Itzuliko etapetan. Burunda eta Aralar klubei eta Sakanan sortutako txirrindulariei aitortza egin zitzaien, eta munduko txirrindulari onenak gertu ikusteko aukera probestu zuten sakandarrek

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Apirilaren 6an despeditu zen Itzulia, baina oraindik ez dira munduko txirrindularitza probarik onenetakoa Sakanan egon zeneko oihartzunak isildu. Apirilaren 3an eta 4an Sakana munduko 168 herrialdeetara iritsi zen telebista bidezko seinalearen bidez, eta gure paraje zoragarriak munduan barna ikusi ziren. Eguraldi bikainari esker, are ederragoa zegoen Sakana. Balantzea egiteko garaia da, eta Itzuliak izan zuen jarraipena eta babesa ezin da ukatu: Sakana txirrindularitzaren herria izan zen.

Sakandarrek Itzuli barruan

Sakanak presentzia handia izan zuen Itzulian. Hasteko, hiru txirrindulari sakandar izan genituen lehian: Gorka Izagirre (Cofidis), Igor Arrieta (UAE Emirates) eta Iker Mintegi (Euskaltel Euskadi). Gorka Izagirre 36 urteko beterranoak lan handia egin zuen Ion Izagirre anai eta liderraren alde. Ion bederatzigarren sailkatu zen, Top 10ean, baina Gorkak ezin izan zuen azken etapa bukatu. Igor Arrietak bere hirugarren Itzulia zuen, lehena UAE-rekin. 21 urteko gaztea ikusgarri aritu zen, bereziki azken etapen, Juan Ayuso liderraren Itzuliko garaipenean eta Marc Soler taldekidearen laugarren postuan laguntza handikoa izan baitzen. Sailkapen orokorrean 61. izan zen uhartearra, Ayuso txapeldunetik 17:14ra. Bere taldea, UAE, Itzuliko talderik onena izan zen. Egindakoarekin pozik dago Arrieta. "Itzulian izandako errendimenduari oso kontentua nago, eta Ayusok garaipena lortzeko taldeak azken etapen egindako lan handiarekin, pozik. Jay Bine taldekidea eta gainontzeko erorkoetan min hartutakoak ahaztu gabe; aurki osatzea opa diet" azaldu du Sare Sozialetan. Bestalde, aurten profesionaletan debutatu duen 21 urteko Iker Mintegik bere lehen Itzulia jokatu zuen, eta ederki aritu zen.

Altsasuarra 83. sailkatu zen, 28:11ra. Bere taldea, Euskaltel Euskadi, Itzulia zazpi txirrindularirekin amaitu duen talde bakarra izan da. "Eskerririk asko marea laranja, eta eskerririk asko Euskaltel Team" azaldu du, taldeari emandako aukera eskertuz.

Itzuliko beste protagonista sakandarrek Euskaltel-Euskadiko zuzendari Jorge Azanza eta Kern Pharmako zuzendari Pablo Urtasun izan ziren. Baina ez ziren sakandar bakarrak izan, taldeetako staff-etan makina bat mekanikari eta auxiliari sakandar aritu baitziren lanean. Itzuliko speaker Juan Mari Guajardo eta Radio Vueltako ahots Monica Guajardo ahaztu gabe. Anai-arreba altsasuarrak Itzulia Sakanan egoteagatik "zeharo hunkituta" zeudela aitortu zuten. "Hau sekulakoa da Sakanarendako. Munduko txirrindulari onenak hemen egotea... handia da" zioten.

Zaleak, oso gustura


Sakana txirrindulazalea dela argi geratu da. Jendetza hurbildu zen apirilaren 3an Altsasun despeditu zen eta esprintean Quinten Hermansek (Alpecin-Deceuninck) irabazitako etapa bukaera ikustera, eta Sakanako gainontzeko herrietan ere jende asko atera zen Itzuliaren pasara ikustera. Itzuliak Burunda klubari omenaldi polita egin zion Altsasun klubeko txirrindulariek talde argazkia atera zuten Hermans txapeldunarekin, eta Juan Mari Guajardo speakerrak kubetik sortutako txirrindulariak izan zituen gogoan: Santi Crespotik hasita, Jorge Azanza, Igor eta Iker Flores anaiak, Pablo Urtasun eta Iker Mintegi aipatuz. Halaber, Burunda-Quesos Albe-

**ITZULIAN BURUNDA
ETA ARALAR KLUBEK
ETA SAKANAKO
TXIRRINDULARIEK
AITORTZA JASO ZUTEN**

nizko presidente Oscar Guerriori elkarrizketa egin zion. Iker Mintegi eta Igor Arrieta txirrindulariei elkarrizketa egin zitzaien, eta sari banaketan Altsasuko alkate Javier Ollok eta Miguel Indurainek hartu zuten parte. Mintegiri ongi-etorri beroa egin zitzaien jaioterrian.

Hurrengo egunean Etxarri Aranaztik abiatu zen Itzulia, eta kasu honetan Aralar kluba, Sakana Group-Alea taldea izan zen hizpide. Klubeko txirrindulariak oholtza gainera igo ziren, eta lore sorta eskaini zioten Igor Arrietari, uhartearra Aralarren trebatu baitzen. Halaber, Egoi Martinezek klubari buruzko azalpenak eman zituen, eta bertatik atera diren txirrindulariak gogoan izan zituen: Javier Garzandia, Jose Luis Arrieta, Gorka Verdugo, Egoi Martinez bera, Igor Arrieta... Oholtza gainera igo zen beste bat Alberto Martinez Euskaltel Euskadiko txirrindulari ohia izan zen, Lakuntzan bizi, eta Sakana Groupeko zuzendarietako bat dena.

Etxarri bildutakoek munduko txirrindulari onenak gertu ikusteko aukera izan zuten. Euren sinadura asko bildu zituzten, ia txirrindulari gehienak animatu baitziren argazkiak atera edo zaleei sinatzera. Sakana Groupeko neska txirrindulariek moztu zuten hasierako zinta, Egoi Martinez eta Gorka Verdugo ere bertan zirela, Etxarri Aranazko alkate Maria Saez de Albeniz eta bestelakoekin. Aurreskuak eman zion hasiera etapari, eta pena kilometro batzuk aurrerago gertatutako erorikoak. Tamalez, txirrindularitzaren parte ere badira, Itzuliko etapak jarraitza hurbildu zen Josu Etxeberria txirrindulari iturmendiarrek aski ongi dakien bezala. Finean, Itzuliak omenaldi polita egin zion Sakanako txirrindularitzari. Eta mundiala izan zen World Tour proba batek mugitzen duen guztia ikustea.



Altsasuko esprinta, ikusgarria.



Iker Mintegi, Altsasuko helmugan. MIREN A.



Burunda-Quesos Albenizkoak, Hermans garailearekin podiumean.



Arrietak taldekide ohien aitortza jaso zuen.



Gorka Izagirre, Etxarri sinatzen.



Aralar-Sakana Groupekoak, Etxarri Aranazko aurkezpen oholtzan.



Remco Evenepoel zale asko ditu.



Etxarriko irteera, atzean Roglic dela.



Miren Agur Meabe 'Itzulerak' liburuarekin. ELKAR ARGIALETXEA

Martijaren istorioa

Miren Agur Meabe idazleak 'Itzulerak' liburua kaleratu du; Martija de Jauregi XVI. mendean Uharte Arakilen bizi izan zen emagin eta sendagilearen historian oinarritu da, eta iragana eta orainaldia tartekatu ditu. Hilaren 26an aurkezpena egingen du

Eneida C. M. eta E. R. B. UHARTE A. Hasiera batean Miren Agur Meabe idazleak sorginei buruzko eleberri bat idazteko asmoa zuen, baina bere eskuetara Baginen Txalapartak Cira Crespo eta Ele-ne Ziordiak idatzitako historiak bazterrean utzitako emakumei buruzko liburua iritsi zen, "eta emakume horien artean Martija de Jauregi aurkitu nuen, XVI. mendean Sakana aldean emagina eta sendagilea izandakoa". Uharte Arakilen bizi zen Martija, hain zuzen. "Bereziki arreta eman zidana izan zen Martijaren aitona nire jaioterrian medikua izan zela, Lekeition, eta horrek txinparta moduko bat piztu zidan". Lagun historialariei galdetu ondoren, horrela izan zela jakin zuen: "Kontzejuak 1540. urtearen inguruan Gaspar Cartajeari, Martijaren aitona, herriko medikua izateko kontratua egin zion".

Martija txikitik Lekeition bizi izango zela "fantaseatzen" hasi zen, eta bere istorioan oinarritutako *Itzulerak* liburua idatzi zuen. Apirilaren 26an, ostirala, 19:00etan, Uharte Arakilgo udaltxean, Meabek *Itzulerak* liburua aurkezpen solasaldia egingo du, Literatura Geraldia egitasmoaren barruan. "Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiet bertan liburua aurkezteko gonbita egin didatenei". Maiatzean Lekeition egingo du aurkezpena, "liburuaren alfa eta omega berriro ospatzea izango da". Istorioa Garraitzetan hasten

"MARTIJAREN AITONA LEKEITION MEDIKU IZAN ZEN, ETA HORREK TXINPARTA BAT PIZTU ZIDAN"

da, Meaberen Lekeitioren toponimo literarioa, eta Sakanan garatzen da. Uharte Arakilgo aurkezpenean Izaskun Etxeberria idazlea izango da aurkezlea. Etxeberriak *Itzulerak* liburua ongi ezagutzen du, eta eleberrian oinarritutako material didaktikoa ere sortu du.

Martija de Jauregi

Martija de Jauregiaren aitona Lekeitioko medikua izanik, txikitik Lekeition bizi izango zela uste du Meabek: "Ez da apenas bere bizitzaren inguruko daturik, baina hortik fantaseatzen hasi nintzen". Fantasiako istorio bat idatzi du, Martijaren inguruan "oso gutxi" jakin delako: "Uharte Arakilen bizi zela, zein izan zen bere lanbidea; belarrekin eta abarrekin lan egiten zuela, eta 1582an Nafarroatik erbesteratu zutela". Hasiera batean sorgintzat

hartuta zigortu zutela uste zuen idazleak, "eta horretatik zerbait egon zen, baina epaiketaren laburpentxo batean agertzen da arazo nagusiagoa intrusismo profesionala izan zela".

Martijaren historia Aro Modernoan kokatzen da, "eta oso konplexua dela kontuan hartu behar dugu, Erdi Arotik irteten, aro berri honetan talka handia gertatu zen zientziaren eta jakintza tradizionalaren artean". Besteak beste, itsas esplorazioaren mendea, aurkikuntza eta asmakari berriena, erlijio gerrera eta pentsamolde berriena izan zela gaineratu du. "Hori guztia nahastu zuten gizartean jakintza batzuk balidatzeko eta beste batzuk baztertzeko". Modu sotilean liburua islatu nahi izan du, eta horrek ere aukera eman dio beste gai batzuk aurkezteko. "Gai asko agertzen dira, ez oso sakon, gazteei gogoeta eragiteko moduan".

Haizea eta denbora

Itzulerak liburua hasieran "nahiko nobeleskoa" dela esan du Meabek. Zortzi atal ditu, eta denen izenburuetan aipatzen da haizea edo denbora: "Hau inportantea da; liburua momentu batean esaten da mundua haizeek mugitzen dutela, baina badirela haize onak eta haize txarrak, ongiaren eta gaizkiaren sinboloak". Beste alde batetik, jarraitu du idazleak, denbora elementu garrantzitsua da istorioa "saltoka" kontatzen delako: "XXI. mendean eta XVI. mendean artean".

"Lehenengo atalean XVI. mendean Garraitzetan izeneko toki batean bizi den neska gazte bat aurkitzen dugu. Sute bat zabalduko da, eta zerbait gertatuko zaio neska horri". Hurrengo atal multzoan XXI. mendera salto egiten du istorioak, eta Kattalin medikua izan nahi duen 17 urteko neska bat da, Gontzal bere 15 urteko neba, eta Miriam anai-arreben ama agertzen dira. "Bizimodu aldaketa bat izango dute, Nafarroa barrualdetik Garraitzetara bizitzera iritsiko direlako, gurasoak banandu direlako eta amak amonaren izandako etxe

"EZ DAGO APENAS BERE BIZITZAREN INGURUKO DATURIK, BAINA FANTASEATZEN HASI NINTZEN"

zaharrean ostatu bat jarri nahi duelako". Hortik aurrera txandakatu egiten dira iragana eta oiraina. "Martijarekin bidaia geografiko, emozional eta espiritual bat biziko duen arte".

Martijari buruz informazio "hain gutxi" zegoenez, "zorionez hainbat gauza deskubritzen joan nintzen", baina kontsultarako materiala erabili behar izan ditu Meabek. "Adibidez, sendalaritza XVI. mendean belarren erabilera oinarritzen zen eta Garbiñe Larrearen liburutik errezetak eta sendagaiei buruzko informazioa ateratu nuten". Blogetan eta bestelako materialetan ere erditzearen inguruko ohitura eta errituak bilatu behar izan dituela esan du idazleak, eta Katakakek argitaratutako sorginei buruzko saiakera bat ere erabili izan du. "Ez sakon, baina denetatik irakurri behar izan dut". 30 kapituluko liburua egitea aurreikusten zuen, eta 70 hartu ditu liburua. "Historiak gehiago eskatzen zidan". Gozatu eta, aldi berean, "sufritu" duela esan du Meabek: "Zenbat eta gehiago idatzi, orduan eta maiteago nuen Martija". Castillo Suarez lagunarekin batera Uharte Arakilen, Martijaren herrian, egoteko aukera izan zuen: "Eta Zamartze barrutik ezagutu nuen, eszenaren bat bertan kokatzen dudala, eta aldarazi zidan zenbait lerro". Uharteko alkateak ere Martija erraldoia erakutsi zion, eta muntatu gabe zegoen arren, "musu bat eman nion esanez 200 orrialde sorrarazi dizkidala zuk jakin gabe". Liburua fabulagile moduan "hazkunde prozesu" bat izan dela esan du Meabek.

Itzulerak gazte literatura da, baina Meabek azaldu bezala, "liburu honek badu nire beste liburu batzuek duten ezaugarria: adin tarte zabalerako dela". Historia sortzean gazteak gogoan izan ditu, baina helduek ere irakurtzen dute. "Gazte literaturaren baldintza da protagonista nagusiak gazteak izatea". Denboraren poderioz eta "eginaren eginaz" gazte jendeari bideratutako irakurketa sortzen ikasi du: "Atal, laburrak, jakinmin puntu batekin egitea hurrengo atalerako gogoari eutsi ahal izateko, erritmo arinean eta hizkera maila ere, aberatsa izan arren ni oso sinonimo zalea eta eremu semantiko zabalak erabiltzearen aldekoa naizen arren, halako florituretan ibili gabe".



Trikidantz Etxarri Aranatzen

Etzi, igandean, Trikidantz taldearen kontzertua izanen da, 20:00etan, Etxarriko plazan. 2023. urtean taldeak kaleratu zuen *Bixi bixi* bideoklipa Etxarri Aranatzen, Leitzan eta Aurtitzen, egun bakar batean, grabatu zuten. Taldekideekin batera, hogeit bat etxarriar agertzen dira bideokliplean. Egund polita pasa zutela esan zuen Arkaitz Mindegia taldekideak.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Christian Dior

Balenciagaren telesaila ikusita, eta modaren historian murgilduta, ezin dugu Christian Dior aipatu gabe utzi. Granville-n jaio zen 1905ean, Akuario zodiako-zeinuan, eta, beraz, belarrietatik ateratzen zitzaion sormena.

Gaztaroan Parisera bidali zuten, egunen batean Frantziako gorputz diplomatikoetako kide izango zelakoan. Bere denbora, ordea, mundu sortzaile eta bohemioan murgilduta ematen zuen, Salvador Dalí, Jean Cocteau eta Christian Berard bezalako izenekin batera. Hasieran, Christian Dior diseinatzaile frantziarrak bere familiak finantzatzutako arte-galeria bat sortu zuen, Picasso eta Braques bezalako artisten lanak hartzen zituen.

Berarden laguntzarekin, Christian Dior bere ilustratzaile lana egunkariei saltzen hasi zen, eta moda ilustraziorako zuen talentu ezkutua Lucien Lelong diseinatzailearen estudioan lortu zuen. Han Pierre Balmainekin egin zuen lan.

Soldadutzak diseinatzailearen atea jo zuen.

Gerran zerbitzatu ondoren, 1942an Parisera itzuli zen goi mailako joskintzan, *couture*-n lan egiteko. Marcel Boussac, ehungintzarako enpresaburu frantsesa, gerraren ondoren bizirik iraun zuen fabrika bakarretako baten jabea zen. Honek Diorri bere arropa lerro bat berpizteko aukera eskaini zion makinak martxan mantentzeko, baina Diorrek ezezkoa erantzun zion. Enpresari batek konpainia bat berpizteko eskaintza eskuzabala egin ondoren, Christian Diorrek 1946an sortu zuen gaur egun beharbada modaren enpresarik boteretsuena dena.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Christian Diorren arrazoi bat eman zion emakumeei bere New Lookekin janzteko, bere diseinuekin emakume guztiei dotoreak izateko aukera eman zion, ez bakarrik goi gizarteko emakumeei. Bere arrakasta modaren demokratizazioarekin eta bere markaren hedapenarekin etorri zen mundu mailan. Bere ospea eta sofistikazioa Ameriketaraino iritsi zen.

Christian Dior Maison-a, moda egitea baino gehiago, gizarte-aldaketarako tresna izen zen, Dior etxeak gaur egun ere betetzen duen rola, Maria Grazia Chiuri eta Kim Jonesen zuzendaritzapean.

"Erreferentzia historikoen gainean eraiki dut istorioa"

JUAN LUIS LARRAZA LAKUNZA IDAZLEA

'Bernoa' nobela historikoa idatzi du etxarriarrak: Etxarri Aranatzen sorreran kokatu du istorioa. Apirilaren 17an, asteazkena, aurkeztuko du, herriko kultur etxean

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ Betidanik izan duela nobela historikoarekiko zaletasuna esan du Juan Luis Larraza Lakunza etxarriarrak. "Erdal idazle klasikoak irakurri ditut, bazterrean utzi gabe, zalantzarik gabe, Toti Martinezen nobelak, batez ere Nafarroarekiko lotura duten guztiak, eta azken urteetan Nafarroaz asko aritu den Begoña ProUriarte nobelagilearen lanak". "Handik eta hemendik" edan duenarekin, aspaldi pentsatuta zeukan ideia bati forma ematera animatu zen. Horrela sortu zuen Bernoa, XIII. eta XIV. mendeetako Etxarri Aranatzen oinarritzen den eleberri historikoa. Apirilaren 17an, asteazkena, 19:00etan, Etxarri Aranatzko kultur etxean aurkeztuko du. **GK KOMUNIKAZIOAK** argitaratu du liburua.

Zergatik Etxarri Aranatzen oinarritutako nobela historikoa?

Betidanik izan dut kezka historikoa. Lanbidez tokatu izan zait, zortea izan dut, Nafarroa behetik gora eta eskuinetik ezkerrean ibiltzea, leku asko ezagutu dut, historia asko, herriak eta bazterrak, eta beti aurkitu dut erreferente historiko bat leku horietan. Gero Etxarriara etortzen nintzenez, asteburuetan lagunekin afaltzera, konturatzan nintzen herrian ez zegoela erreferentziarik, ez zegoela historiarik. Ez bakarrik Etxarri, Sakana osoan. Hasten bagara begiratzen, ez oso urruti ere, 1500. ur-

teetara, Nafarroak bere askatasuna galdu zuen urteetara, dirudienez gaztelarrak hemendik pasatu ziren eta gu ez dakit non geunden. Niri erdi broman beheko herrietan erdi broman esaten zidaten ea non geunden egun hartan, eta San Adriñ edo San Pedro eguna izango zela eta erromerian egongo ginela esaten nien. Zerbaiten falta sumatu izan dut, eta horrek begiratzera eramana nau. Zer daukagu herrian? Paisaia eder bat, leku zoragarri bat, beste asko bezala, baina guretzat gurea; badauzkagu haurtzaroan bizi izan ditugun istorio asko, eta baditugu ermita batzuk eta oraindik ospatzen ditugu erromeria batzuk. Gure gurasoengandik ere istorio asko jaso ditugu. Etxarri sortu omen zen inguruan zeuden herri guztiak batu zirelako, eta haien oihar-

"PERTSONIAK GARRA DUTE, EDERRAK ETA INTERESANTEAK DIRA, ETA EUSKALDUNAK DIRA"

"LOTURA HORI EMATEKO EZ ZITZAIKAN GAUZA HOBEAGORIK IRUDITU, GALTZADA BAINO"

tzunak dira mantentzen diren ermitak eta erromeriak. Ez dut ukatuko zer esan handia izan duela nolabaiteko historia hori gureganaino iristen Rafael Karasatorrek egin izan duen lana. Kontuan eduki beharreko pertsona bat da, oso ongi jantzita dagoena, ez Sakanan edo Etxarri bakarrik, baizik Nafarroa osoan egin dituen lanak oso kontuan hartzekoak dira. Berak ere argitxo hori pizturik mantendu du. Detaileak dira; mahai batean aurrean, orri zuri baten aurrean jarri eta ea zer ateratzen zaidan lagundu didaten detaileak.

Nolako izan zen idazte prozesua? Egia esan, lehenengo lau orriak tirada batean egin nituen, eta ez zitzaizkidan gehiegi gustatu, baina hor gelditu ziren. Hilabeteak pasatu ziren, eta nolabait gure herrialde honetan euri asko egiten duen, euria egiten zuen beste egun batez berriro hasi nintzen eta jarraipena ematen hasi nintzaion. Horrela, euria egiten zuen aldioro idazten eta idazten jartzen nintzen **Zertan oinarritu zara?**

Etxarri ez daukagu historiarik. Bai badauzkagu ukitu edo pintzelada batzuk. Pintzelada horiek jarri ditut. Horien gainean eraikina eraiki dut, eta eraikin horren gainean jarri ditut nire pertsonaiak. Pertsonaiek garra dute, ederrak dira, interesanteak dira, biziak dira eta euskaldunak. Oso euskaltzaleak dira. Bigarren atal

batean, nobelari bide bat eman behar nion; nolabaiteko lotura bat. Lotura hori emateko ez zitzaidan gauza hoberik iruditu Bernoako galtzada baino. Orain dela urte batzuk deskubritu nuen Etxarriko talde batek galtzadan indusketa lanak egin zituztela, eta iruditu zitzaidan gauza zoragarri bat. Orduan pentsatu nuen nik kontatu nahi nuen harria bideratu ahal izateko galtzada behar nuela: beheko galtzada behetik doana eta goiko galtzada Urbasatik doana. Aralar eta Urbasa elkartzen ditu. Kontuan izan behar dugu guk Urbasarekin harreman handia eduki dugula betidanik, eta hemendik gutxira Maiatzaren Lehena ospatuko da, zentzu handiko eguna eta nik nobelan oraindik handiagoa eman diodana. Espero dut jendeak gustukoa izatea. Galtzada lapurren bidea zela esaten dute, eta nik erreferentzia horrekin zerbait atseginagoa egin nahi izan dut, eta zentzu txar hori eman ordez, zentzu baikor bat eman diot. Etxarriarrok kontrolatzen genituen Ataungo gaztelua eta Aralarren zegoen Ausako gaztelua. Hor gertatzen diren istorioak ezin ditut aurreratu...

Pertsonaiak nolakoak dira?

Pertsonaiak pilo bat dira. Bi pertsonaia nagusi daude, baina ez dira hasieran ateratzen. Sortu ditudan pertsonaiak asmatutakoak dira, denak, nahiz eta izen batzuk bizirik dauden herritar batzuen izenak diren. Baina, betiere, markatzen dut izenek ez dutela zerikusirik bizirik dauden pertsonekin, kontuan hartuz Erdi Aroaz ari garela. Pertsonaiak sortu nituen, eta pertsonaia horiekin jolasean hasi nintzen eta istorioak asmatzen hasi nintzen. Batak beste bat ekarri zuen, gero pertsonaia bat galdu nuen, nahita, jakina, eta beste batzuk etorri ziren. Hor korapilo bat sortu zen, eta azkenean borobildu ahal izan nuen, betiere kontuan hartuta erreferente historikoak. Nobela historikoa dela esaten dugunean horregatik da, erreferentzia historikoak dituelako kontakizunak. **Pertsonaiak erreferentzia historikoetan sartu dituzu?**

Erreferentzia historikoak hain gutxi izanda horiek oso kontuan izan ditut eta mimatu ditudala esan daiteke. Oso kontuan eduki ditut, eta horren inguruan gertatu dira gertatu diren istorioak. Horren inguruan dantzatu dira pertsonaiak. Erreferentzia his-



Juan Luis Larraza Lakunza idazlea 'Berno' liburuarekin.

toriko gutxi horiek, oso gutxi direla, oinarritzotzat izan ditut. Gainera, batzuk aldatu ditut eta notatxoa jarri dut azalduz ez zela horrela izan. Nobela da, ez historia; nobelak dena aguantatzen du. Pena bat da erreferentzia historiko gehiago ez izatea. Nafarroako Artxibo Nagusian tanto batzuk egin ditut, eta bilaketa batzuk egin ditut, eta orain arte idatzi dudanari buruzko data edo detaile gehiagorik ez dut aurkitu. Zertxobait beranduxeagokoa bai, eta aterako dugu. **Kontuan hartuz erreferentzia gutxi daudela, zergatik Erdi Aroa?**

Hori oso gauza pertsonala da. Niri Erdi Aroa izugarri gustatzen zait, nobela historikoa izugarri gustatzen zait, eta irakurri dut, ez dut dena esango, baina bai asko; Aragoi, Bizkaia eta inguruko herrialdeetako nobela historiko asko irakurri ditut. Beti

eduki dut horrelako inbidia bat. Zergatik ez dugu guk horrelako erreferentzia bat izan behar? Badakigu asmatutakoa dela, ez dela egiazkoa, baina noizean behin bizitza honetan ilusioz bizitzea ere interesantea da, eta ilusio hori lortzen badugu pape-

"PERTSONAIK SORTU NITUEN ETA HORIEKIN JOLASAEAN ETA ISTORIOAK ASMATZEN HASI NINTZEN"

"ZER, NOIZ, NOLA ETA NORK GALDERAK ERANTZUTEN DITUZTE PERTSONAIEK LIBURUAN ZEHAR"

rean jartzea eta lerro bat bestearen ondoren jartzean forma ematea, interesgarria izan daiteke. Hori nuen aspaldian buruan. **Irakurleek agertzen den Etxarri ezagutuko dute?**

Kontuan izan behar da erreferentzia nagusia Etxarriren sorrera dela. Etxarri gaztelu bat zen, hor toponimiak markatzen duen tokia Dorremuino bat dago. Toponimiekin eta izenekin jolastu naiz asko. Zergatik da Dorremuino? Zerbaitengatik izan da. Jauregia zegoen Etxarri; non zegoen? Halako tokitan esan digute beti. Eliza zegoen, non? Herri harresitua zen, eta nork egin zuen harresi hori? Nork ordaindu zuen? Etxarri erreferentzia zentrala da, herria, horregatik. Zer, noiz sortu, nola eta nork galderak bota nituen. Zer? Herria. Noiz? Erdi Aroan. Nola sortu zen?

Erregeen diruarekin? Ez. Erriberako jauregiak Nafarroako Erregeek ordaindu zituzten, baina hona ez ziren inoiz etorri, ez zuten dirudik jarri. Nork? Pertsonaiak egon behar zuten. Galdera horiei erantzuten diote liburuan agertzen diren pertsonaiek.

Idazteko orduan galdera horiek ere jarraitu dituzu?

Ez. Publizitatean pentsatzen hasi nintzenean, nola sortu herritarrengan nolabaiteko kezka, etorri zitzaizkidan horiek burura. Ni Etxarrikoa naiz, eta Etxarri gehi Arañaz, ñ-rekin, eta lau galdera hauek egiten badizkiot nire buruari, herritar bezala kezkatuko nintzateke. Interesgarria dirudi.

Noiz hasi zinen liburua idazten?

Egia esan, hiru urte eraman dizkit. Eskertu nahi dut herrian pelmada aguantatu didaten lagunak, kuadrillakoak, afarietara joaten ginenean hasten nintzelako: leku honetan egon zarete? Nondik igotzen da? Eta beste hau... Lagun arteko afarietan dokumentazioa bildu izan dut. Etxarriko indusketa taldeak ere dokumentazio bat edo beste eman dit. Jasotzen nuen dena, isil-isilik, eta gero etxera iristen nintzenean apuntatzen nuen. Irteerak egiten ere saiatu naiz, baina belaunak ez dit aukera gehiegi eman. Txirrindulan gerturatu naiz. Gainera, toki horiek erabili izan ditugu txikitatik ganadurekin ibiltzen ginelako, eta haurtzarora kalean pasa dugu, euria egin edo elurra egin.

Bizitza osoan jasotakoa islatzen ere saiatu zara.

Gure haurtzaroran, gure garaian, ez zegoen ez telebistarik ez telefonorik, orduan, guregana iritsi ziren kanta batzuk, jolas batzuk eta bizimodu batzuk... Nik betidanik izan dut gogoa horiek jasotzeko. Baina nola jaso? Banan-banan ez dute garrantzia handirik, ez dute hamar orriko kodernotxorik osatuko. Baina honekin hasi nintzenean, bikain etorri zitzaidan: haurtzaroko kantak, abestiak, jolasak eta bar sartzeko baliatu nuen, eta hor geldituko dira liburuan.

Bigarren zatia egongo da?

Bai, egongo da bigarren zati bat. Nafarroako artxibategian egiten ari naizen ikerketan materiala oso interesgarria aterata da. Inork ezagutzen ez gunden dokumentazioa aterata da, eta hari ere forma ematen nabil.

"Arakilgoa hiztegi polita eta mardula da"

'Nafarroako Euskalkiak. Hegoaldeko Goi-Nafarrarera. Arakilgo aldaera' liburua aurkeztuko du Aitor Aranak, Koldo Colomorekin batera, etzi, igandea, Irurtzungo udaletxean. 350 orrialdeko hiztegia osatu dute hizkuntzalariek

Erkuden Ruiz Barroso ARAKIL

1 Zer da 'Nafarroako Euskalkiak'?

Hiztegi bilduma bat da, eta honen helburu nagusia euskara galdu zen eremuetako euskalkiak berriz ere jendearen eskuetan jartzea da. Orain dela 23 urte hasitako lana da, mende hasieran, eta pixkanaka-pixkanaka, ibarrez ibar, denak argitaratzen ari gara.

2 Zertan oinarritzen zarete euskalkia ikertzeko?

Euskara galdu zen eremuetan gabiltza; horrek esan nahi du lan hauek funtsean jatorrizko hiztunik gabe egin direla, salbuespenak salbuespen. Idatzitako iturrietan oinarritu gara. Iturri garrantzitsu bat ibarreko toponimia izaten da. Beste alde batetik, ibar horiek euskaldunak zirenean normalean mezak euskaraz ematen ziren, sermoiak euskaraz ziren eta dotrinak ere euskaraz ematen ziren. Dotrina horiek ibarreko euskaraz zeudela kontrastatzean eta interesgarriak direnean, erabili izan dira. Iturri asko daude, baina azken bat aipatzearen, Koldo Arto-la da. Nafarroan zehar ibili zen, zorionez garaiz, eta azken euskaldunak aurkitu zituen. Horixe egin zuten Arakilen.



Aitor Arana, hizkuntzalaria. UZTARRIA

3 Beraz, zuek Arakilen hiztunik ez duzue topatu.

Zoritxarrez, ez. Lan hau hasi nuenean jadanik ez zegoen, baina esan bezala zorionez beste batzuek lortu zuten. Horrela Urritzolako Bautista Etxarrenen iturria dugu. Koldok lan handia egin zuen, eta 1300 sarrera bera-

ri esker sortuak dira. Ihabarren hiztun garrantzitsu bat aurkitu zuten Koldok, Ooreretan bizi zen emakume bat, eta 1000 sarrera inguru eskuratu ahal izan dira.

4 Hiztegien euskara batua eta Arakilgo euskara agertzen da, ezta?

Hori oso garrantzitsua da. Nik beti ikusten dut euskalariak, euskaltzainek eta langile handiek horrelako lanak egiten dituztenean euskalkietan ematen dituztela hiztegiak eta hitz zerrendak, baina gero horiek ezin dira kontsultatu euskara batutik. Oso interesgarria da kontsultatu ahal izatea. Gure bilduman hasieratik egon da euskalkia eta euskara batua.

5 Euskalkia erabiltzen eta berreskuratzen hasteko bide ematen du?

Funtsezkoa gogoia izatea da. Euskalkia berreskuratzea berez egin daiteke ahalegina eginda. Hori ez da garrantzitsuena. Euskara galdu den lekuetan orain poliki hiztegi hauetatik kolore pixka bat hartzen ari da, eta norberaren euskara batuari eransten dizkiote.

6 Zer nabarmenduko zenuke Arakilgo euskaraz?

Lokarria da; hizkeren arteko lotune batean dago. Denetarik aurki dezakezu. Normala da igaro lekua delako. Hizkuntz egoerak islatzen du egoera geografikoak markatzen duena. Bitxikeria bat azpimarratzekotan, Bonapartek Arakilgo euskara Hegoaldeko Goi-Nafarrera bezala sailkatu zuen; gaur egun euskalkilariak ez daude ados horrekin eta ez dela peto-petoea diote. Behin agertu da G protetikoa; H-aren ordez G bat egotea. Euskalkian, antzina, erakusleak G protetikoarekin ahoskatzen zen. Horrek esan nahi du sailkapen horretatik sartzen zela, irteten zela...

7 Euskalki aberatsa da.

Aberatsa da. Hiztegi polita eta mardula da. Normalean ehun

edo 200 orrialde izaten dituzte, eta Arakilgoak 350 ditu.

8 Arakil osoa hartu duzue?

Herri handiei erreparatu diegu. Kasu honetan dokumentazioa non, gu han. Oso interesgarria izan da ere txiripaz Izurdiagan Maria Mercedes Idoi izeneko emakume batek egin zuen lan etnografikoa. Lankideak euskaraz egiten zuen eta jaso zuen, eta horri esker lekukotasun garrantzitsua da Izurdiaga ere.

9 Zertarako euskalkiaren hiztegi bat izan?

Besterik gabe badaudelako euskaldunak ibar horietan euskalkian interesatuta daudenak. Berdin zait bost diren edo 5000 diren. Horiek materiala eskura izan behar dute. Normalean aldizkari espezializatuetan egoten da material hori, eta Internetarekin errazagoa da bilatzea, baina hala ere askoz errazagoa da kolpe batean eskuan izatea.

10 Hitz bat aukeratu behar baduzu...

Ustekabean harrapatzen nauzu. Baina Ihabarko materialean emakumeak kontatzen zuen 14 urtera arte herriko inauteriak ezagutu zituela, eta gero ohitura galdu zela, baina bi panpina ateratzen ziren: Aitezarko eta Landarra. Oso interesgarria irudituzitaidan.

11 Eta istorio horiek kontsulta daitezke?

Lekukotasun horiek garrantzitsuak eta interesgarriak dira. Bautista Etxarren bezala, Lizarraldeko azken euskaldunak ezagutu baitzuten. Fontes-en argitaratuta daude; hiztegien hitzak daude, eta Fontes-en kontakizunak.

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU KORPORATIBOA

DISEINU EDITORIALA

ILUSTRAZIOA

WEB DISEINUA

PUBLIZITATEA

ITZULPENGINTZA

ETA ZUK, ZER BEHAR DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus